

ZILARREZKO EKONOMIARI BURUZKO IKUSPEGI KRITIKOA



AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>4 AURKEZPENA: Zilarrezko ekonomiari buruzko ikuspegi kritikoa
José Ignacio Casas
Soziologoa</p> <p>7 Zilarrezko ekonomiatik adinaren soziologiara
José Ignacio Casas
Soziologoa</p> <p>22 Zilarrezko ekonomia: subjektibotasuna eta praktika neoliberalak sortzen dituen tresna
Eduardo Crespo, Concepción Fernández-Villanueva y Marie-José Devillard
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea</p> <p>32 Zilarrezko ekonomia eta zaintza-ekonomia
Dolors Comas-d'Argemir
Universitat Rovira i Virgili</p> <p>37 Zilarrezko ekonomia osasunean: negozio txarra adinekoentzat
Fernando Lamata
Botikak Modu Justuan Eskuratzeko Elkartea</p> | <p>47 Plataforma digitalak etxeko zaintzaren komertzializazioan: hedatzea eta negozio-ereduak
Raquel Martínez-Buján
Universidade da Coruña</p> <p>53 Jabetzako etxebizitzak markatutako belaunaldia
Verónica Rodríguez
ASUFIN</p> <p>58 Zilarrezko ekonomiaren jokabide-kodea
José Ramón Landaluze
Nagusiak (Bizkaiko Adinekoen Elkartea)</p> <p>63 GOMENDATUTAKO LIBURUA: Age and the Reach of Sociological Imagination. Power, Ideology and the Life Course (Dale Dannefer)
José Ignacio Casas
Soziologoa</p> <p>65 GEHIAGO JAKITEKO</p> |
|---|---|

Dosier honetako testuek egileen iritzia soilik adierazten dute, eta iritzi horrek ez du zertan bat etorri horri buruz MgEk duen jarrera instituzionalarekin.

Economistas sin Fronteras erakundeak tzure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziatzko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarriketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

**Ondorengo esteka honetan
inprimakia beteta:**

Edo **BIZUM**: erabiltzearen bidez:



01895

Fundazioaren kodea
Economistas sin Fronteras

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum> //

Gure erakundeko bazkide izan eta Economistas sin Fronteras erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratu fiskala ematen die, PFEZaren kuotan kenkarirako aukera baitago.



Economistas sin Fronteras

ARGITALPEN KONTSEILUA

José Ángel Moreno - Koordinatzailea

Luis Enrique Alonso

María Eugenia Callejón

Marta de la Cuesta

María Luisa Gil Payno

Juan A. Gimeno

José María Sumpsí

Carmen Valor

Ale honen koordinazioa:

José Ignacio Casas

Soziologoa

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

**Dossieres EsF Mugarik gabeko Ekonomialariak
erakundearen hiru hileroko argitalpen digital bat da.**

Azaleko irudia: Fotomuntaketa Pexels.com eta Adobe
Stocketik ateratako irudietan oinarrituta egin da.

Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki nahi duten pertsonen osatua; erakundearen lehentasunezko asmoa pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da.

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearen uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela, ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzura egon daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea, modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har dezaten.

Erreferentziazko GKE bat izan nahi dugu bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte- eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa errazten eta sareko lana sustatzen lagundu. Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin ahal izateko.



MgE Dosierak, Economistas sin Fronteras erakundeak egina (<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala lizentzia baten pean banatzen da

(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>).

Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki, bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi

EKONOPOLLO

Harrobi Plaza, 4,

48003 Bilbo, Bizkaia

Tel.: 722 371 633

ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak

c/ Gaztambide, 50

(entrada por el local de SETEM)

28015 Madrid

Tel.: 91 549 72 79

ecosfron@ecosfron.org

ZILARREZKO EKONOMIARI BURUZKO IKUSPEGI KRITIKOA

José Ignacio Casas
Soziologoa

Mendealdeko herrialdeetan gaur egun puri-purian dagoen eztabaida da biztanleria zahartzearena, bai eta dagoeneko guztiz ahuldutako ongizate-estatuaren egoera ustez nabarmenduko lukeen zamarena ere. Espainian, salbuespenak salbuespen, gero eta bizi-itxaropen luzeagoa duen biztanleriarentzako pentsioak ordaintzera baino ez dira bideratu ahaleginak. Urtez urte gutxituz doa lan egiteko adina duten biztanle-kopurua, eta haien bizkarrean zamatuko litzateke pisu hori. Horrez gain, adineko pertsonen leporatzen zaie gero eta gastu handiagoa eragitea osasun-laguntzan eta zaintzan, eta arreta hori eskaintzeaz arduratutako erakundeen erantzun-gaitasunak gainezka eginaraztea.

Oro har, jokoan dauden elementuen garrantzia ikusita, eztabaidaren baldintzak urrun daude beharrezkoa litzatekeen analisi lasai eta sakonetik. Hemen aurkeztutako txostenaren helburua, ordea, ez da eztabaida demografikoan¹ sartzea, ezta ongizate-estatuaren funtsezko oinarrien beharrezko birplanteaketan ere. Aldaketa demografikoak mahai gainean jartzen dituen arazo ekonomiko eta politikoetan ere ezin da sartu², ezta biztanleriaren hautapenak –besteak beste– jorratu beharko lituzkeen kontratu sozial berri baten proposamenetan ere³.

Txosten honen izateko arrazoia *zilarrezko ekonomia* delakoa da. Kontzeptu hori honela definitu zen Europako Batzordearentzako txosten batean: «50 urte edo gehiago dituzten pertsonen beharrak asetzen dituen jarduera ekonomiko ororen batura, zuzenean erosten dituzten produktuak eta zerbitzuak, eta gastu hori sortzen duen jarduera ekonomiko gehigarria barne. Hori horrela, zilarrezko ekonomiak jaso egiten du adineko pertsonentzat esanguratsuak diren produkzio, kontsumo eta ondasun eta zerbitzuen merkataritzarekin lotutako jarduera ekonomikoen (publiko zein pribatuen) aparteko lagin adierazgarria, eta zuzeneko eta zeharkako ondorioak biltzen ditu»⁴.

Zilarrezko ekonomia «bizitza-luzeraren dibidenduaren»⁵ ideian oinarritzen da; hau da, osasun ona duen adineko biztanleriari atxikitako kanpo-efektu positiboaren multzoa, teknologia berrien laguntzarekin⁶.

Zilarrezko ekonomiaren ideiak, ordea, jarduera ekonomikoen multzo baten hartzaile hutsera murrizten du adineko biztanleria, eragile aktibo izatetik kontsumitzaile pasibo izatera, *target* espezifiko gisa. Ez da kasualitatea ikuspuntu horrek 50 urtetik gorako pertsonak sartzea *adineko* biztanlerian; izan ere, 50 urtetik 70 urte bitarteko tarte hori da, hain zuzen ere,

1. Horretarako, Azterketa Demografikoen Zentroak (CED) egiten duen lan bikainera igortzen dut; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren campusean du egoitza (<https://ced.cat/es/>).
2. Honako hau ikus daiteke, esate baterako: GOLDSTONE, J.A., KAUFMANN, E.P., eta TOFT, M.D. (2012). *Political Demography. How Population Changes Are Reshaping International Security and National Politics*. Oxford University Press.
3. SHAFIK, Minouche (2022). *Lo que nos debemos unos a otros. Un nuevo contrato social*. Paidós.

4. WORTHINGTON, H., SIMMONDS, P., FARLA, K., et al., (2018). *The silver economy – Final report*. European Commission, Directorate-General for Communications Networks, Content and Technology (Publications Office).
5. OLSHANSKY, S.J., PERRY, D., MILLER, R.A. eta BUTLER, R.N. (2006). «The Longevity Dividend», *The Scientist*, March, 1.
6. PEINE, A., FAULKNER, A., JÆGER, B. eta MOORS, E. (2015). «Science, technology and the ‘grand challenge’ of ageing—Understanding the socio-material constitution of later life», *Technological Forecasting & Social Change*, 93:1-9.



kontsumo-aukera onenak dituen *targeta*, bizi-ziklo ekonomikoan duen posizioa aintzat hartuta.

Txosten hau, beraz, ikuspuntu merkantilista eta erredukzionista horren analisi kritikoan ardatzen da, adineko biztanleriaren baitan segmentu espezifiko eta berezi bati bideratuta.

Lehenengo artikulua, **sinatzen duen honek** izenpetua, gizarte-zientziak egiten ari diren bide luzea laburbiltzen du, zahartzaroari buruzko ikuspegi klasikoetatik bizitzaren ibilbidearen teoriaraino. Ikuspegi horrek gainditu egiten du osotasun homogeneo eta aldi berean gainerako biztanleriatik bereizitakoaren adinekoen ikuspegia. Bere buruari *Geriatria sozial kritiko* deitutako mugimenduak adinekoen eta ez-adinekoen heterogeneotasuna azpimarratzen du, eta lehenengoen egoera bizitzako ibilbidearen aurreko etapen jarraipena baino ez dela. Ibilbide horretan zehar abantailak eta desabantailak pilatzen dira, klase-desberdintasunek markatuta, halako moldez non azken etapetan egoeren are heterogeneotasun handiagoa dagoen.

Eduardo Crespo, Concepción Fernández-Villanueva eta **Marie José Devillard**en artikulua erakusten du zilarrezko ekonomiak gailu neoliberal gisa funtzionatzen duela eta, funtzio komertzialaz gain, subjektibotasunen ekoizle ere badela,

herritarrak klientelizaziora bultzatzeko. Egileak bi kontutan oinarritzen dira. Lehenak erreferentzia egiten dio adinekoa izatea bereizgarri egiten duen adinaren esparruaren mistifikazioari, eta horrek anbiguasuna sortzen du bizitza aktiboaren eta lan-bizitzaren artean. Bigarren kontuak erreferentzia egiten dio pertsonen baldintza psikosozial berrien eta haien subjektibotasunaren eta gizarte-nortasunaren adierazpenari, eta positibotasunez hipertrofiatutzat jotzen dute. Adinekoen diskurtsoak eta irudizko adierazpenak aztertzen dituzte zilarrezko ekonomia sustatzen duten komunikabide, web-orri eta publizitate-eremuetan aurkezten diren moduan.

Dolors Comas-d'Argemirrek zilarrezko ekonomiaren kritikari heltzen dio berriro ere bere artikuluan, eta zaintzen ekonomiarekin alderatzen du; lehenaren antitesia den aldetik, pertsonak eta haien beharrak lehentasunen erdigunean kokatzen ditu, eta ez negozio-hobi gisa. Zaintzen ekonomia merkatuan gertatzen den hartatik haratago doa, eta ordaintzen ez diren jarduera guztiei ematen die balioa, oinarritzkoak izanik. Zaintza etxeetan aurkitzen da nagusiki, baina baita boluntariotzan eta zentzu humanitarioa duten jardueretan ere. Zaintzak ezinbestekoak dira bizitzari eusteko; hala dira *ekonomia erreal* delakoaren funtzionamendurako ere, paradoxikoki baliorik ematen ez zaien arren.

Fernando Lamatak Espainiako osasun-sektorearen egoera aztertu du eta nola bilatu duen negozio pribatuak bi alderditan haztea. Finantzaketa pribatuko osasungintzaren gorakadak zuzeneko lotura du estaldura faltarekin edo osasun publikoaren narriadurarekin. Horrela, egiaztatzen da osasun-gastu publikoaren eskasiak nola ekartzen duen zerbitzuen kalitate okerragoa, koordainketa hedatzearekin eta medikamentuak finantzatzeari uztearekin batera. Bigarrenik, areagotu egin da kudeaketa pribatua eta osasungintzari saltzea finantzaketa publikoko produktuak edo zerbitzuak (medikamentuak eta osasun-produktuak, zerbitzuak kanpora ateratzea, itunak, emakidak eta abar); horretan ez dira arrotzak medikamentuen gehiegizko etekinak. Egileak aukera desiragarri gisa defendatzen du kalitatezko osasun-eredu publikoa, behar adinako finantzaketa egokiarekin.

Raquel Martínez-Bujánek etxean bertan artatutako adinekoen arretak izandako gorakadan ardatzen du bere arreta, bat etorritik emakumeak lan-merkatuan gero eta gehiago sartzearekin eta sostengatzaile bakarraren familia-eredu klasikoa zartatuz. Hori horrela, izugarri handitu da etxeetan zaintza-lanetan arituko diren langileen eskaera. Plataforma digitalak eginkizun esanguratsua hartzen ari dira prozesu horretan, zaintzak merkaturatzeko eskaintzen dituzten aukerak direla-eta. Egileak erakusten du plataforma digitalek planteatzen duten negozio-eredua irmotasunez oinarritzen dela marketin-estrategietan eta buruak eremu erabakigarrietan posizionatzean gizarte-zerbitzu publikoetatik hurbileko eremuetan.

Verónica Rodríguez esparru honetako gai erabakigarrienetako bat jorratzen du: «etxebizitza likidotzeko» modu desberdinak; hau da, jabetzako

etxebizitza aktibo likido bihurtzea. *Babyboom* belaunaldiak bereizgarri duen egoera da: ia guztiak dira jabeak. Bide desberdinak aztertzen dira, bereziki alderantzizko hipoteka, modurik hedatuena eta adierazgarriena den aldetik. Merkatu horretan altuak dira finantza-bitartekariak finkatutako prezioak, eta, gainera, oraindik ere hiri handietan biltzen den merkatua da. Analisiak zehaztu egiten ditu eskaintzaren baldintzen eta bezeroarentzako irabazien arteko asimetria eta kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk.

Txostena amaitzeko, zilarrezko ekonomiarako jokabide-kode bat proposatzen da, **José Ramón Landaluceren** eskutik. Hain zuzen ere, esparru horretan hainbat ekimen publiko eta pribatu irtenbideak eskaini ahal izango lituzkete benetan adineko asko erreklamatzeko ari diren arazoei. Irabazizko planteamendu arruntetik haratago joateko, ordea, interesatutako pertsonen eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeengardentasuna eta benetako partaidetza bermatu behar lukete helburuak finkatzerakoan, irtenbideak diseinatzerakoan, inpaktuak gainbegiratzeko eta laguntzak eta dirulaguntzak fiskalizatzeko. Solaskide guztien artean jarduera-irizpideak eta lankidetzarako moduak proposatzen dira, eta Europar Batasun osora hedatu.

Dossier honen jatorria Madrilgo Pentsiodunen Batasun Demokratikoak (UDP-Madril, www.udpmadrid.org) Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundeari egindako proposamenean dago, entitate nazionalak eta nazioartekoek biztanleriaren zahartzearekin lotutako zenbait gai bideratzeko duten modu partzial edo okerrari aurre egiteko. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu artikulu bakoitzaren egile guztiei, haiek idaztean erabili duten gogo, talentu eta denboragatik. ■

José Ignacio Casas
Soziologoa

1. Sarrera

Zilarrezko Ekonomia deritzonaren planteamenduei buruzko ikuspegi kritikoa adinekoen sozioekonomiatik, edo, hobeto esanda, adinaren sozioekonomiatik abiatu behar da.

Ikerketa-eremu hori hirurogeiko hamarkadan hasi zen garatzen Ipar Amerikako ingurune akademikoan, baina duela urte gutxi arte ez zaio berriro ekin, baina polemika-kutsu handiagoa du analisi lasaia baino, eta alarma-ahotsak sortu ditu biztanleriaren zahartzeari eta mendebaldeko ekonomietan, ustez, adinekoek eragiten duten kargari buruz.

Artikulu honen luze-laburrean, gaur egun eremu horretan identifikatzen diren gai nagusiak zerrendatu baino ezin dugu egin, eta beste baterako utziko dugu beharreko sakontze-lana, bereziki Espainiako kasuan.

Zilarrezko Ekonomiak gaur egun duen planteamendua laborazaldia ondoren, zahartzaroari eta haren alborapenei buruzko soziologia tradizionala berrikusiko dugu artikulu honetan, eta «Gerontologia soziala» deritzonak proposatzen dituen ikuspegi berrietan eta, oro har, adinaren sozioekonomiaren eraikuntzan sartuko gara gero. Azkenik, Espainiako kasua ardatz duten gai batzuk aztertuko ditugu.

2. Zahartzaroaren arazotik zilarrezko ekonomiara

Azken hamarkadetan, biztanleriaren kontrolik gabeko hazkundearekiko kezkatuta egotetik, Erromako Klubaren Txostenak (Meadows et al, 1972 eta 1992) iragarri zuen bezala, biztanleriaren zahartzearen eta jaiotza-tasaren jaitsieraren beldur izatera pasa gara.

Ikuspegi demografiko hutsetik, biziki kritikatu da Erromako Klubaren ikuspegia, Mullan (2000), Zapiain, (2010), Ediev eta beste batzuk (2019), Dubert

eta Pérez-Caramés (2021) eta Domingo (2018 eta 2023) autoreek idatzitakoan ikus daitekeen bezala.

Bizi-itxaropena luzatu izana, hasieran «berri ona» ematen zuena, kezka-iturri bihurtu da. Azaleko azterketa batek —baina baita interesgarria ere—, adierazten du pisu hila dakarrela adineko pertsonen kopuru gero eta handiagoak eragindako karga ekonomikoak, bai pentsioei dagokionez, bai zaintzen kostuari dagokionez. Ondorioz, jasanezina da sistemarentzat eta bidegabekoa hurrengo belaunaldientzat, eta, beraz, lehenbailehen murriztu behar da. Salatu da aurrekontu publikoak gero eta gehiago bideratzen ari direla adinekoen beharrak asetzera, «graying of the budget» (Hudson, 1978), batez ere Baby Boomen belaunaldiarenak (Hudson, 2009a eta 2009b), gazteen kalterako (Conde-Ruiz eta Conde Gasca, 2023); Gil Calvok ere aipatu zuen polemika hori Espainian (2004). Ayalon autoreak erakutsi duenez (2019), gazteak ere ez daude adin-eraso horretatik salbuetsita. Belaunaldien arteko gatazkaren ikuspegiaren kritika ikus daiteke Binstock autoreak idatzitakoan (1983 eta 2010). Horregatik da garrantzitsua, halaber, zahartzearen ekonomiari buruzko ebidentzia zientifikoaren komunikazioa, herri-falaziak desmitifikatzeko (Börsch-Supan, 2013).

Zilarrezko ekonomia erreskatara?

Aurrekoarekin kontrajarrita, «zahartze aktiboa» deritzonaren beharra planteatu da (Dionyssiotis, 2018). Horren harira, aurrekoaren osagarri den argudioa garatu da, adinekoak kontsumitzaile potentzialak ere izan daitezkeela aldarrikatzen duena, edo, gutxienez, kontsumitzaile horien segmentu espezifiko bat, eta, beraz, ekarpen baliagarria egingo liokete dinamika ekonomikoari: «bizitza-luzeraren dibidendua» deritzona da (Aracil Fernández eta Roch Dupré, 2022), eta Zilarrezko Ekonomiaren errotulupean bildutako merkatu-aukerak hartuko lituzke barne. (European Commission, 2018). Ikuspegi horren arabera, egin beharko litzatekeen gauza bakarra izango litzateke merkatu espezifiko hori garatu adinekoen

egokitutako edo berritik diseinatutako produktuekin eta zerbitzuekin; gaizki ulertutako merkatua, munduan potentzial handiena duena izan arren (Coughlin, 2017), (Dimitriadis, 2019).

3. Zahartzaroari eta haren alborapenei buruzko soziologia tradizionala

Aitzina egin aurretik, beharrezkoa da zahartzearekin edo, oro har, adinarekin zerikusia duten gizarte-dinamiken ikuspegi orokorra izatea.

Tradizioz, soziologiak hiru ikuspegitatik heldu dio zahartzeari: funtzionalismoa, interakzionismo sinbolikoa eta gatazkaren teoria. Kasu horietan guztietan, adineko pertsonen portaera eta portaera hori izateko arrazoiak aztertzea hartu da ardatz. Ez dago lekuri hemen ikuspegi horietako bakoitza aurkezteko, nahiz eta hainbat bilduma kontsulta daitezkeen: Bengtson eta Schaie (1999), Bengtson et al. (2009) eta Bengtson eta Settersten (2016), baita Espainiatik ere Rodríguez Ibáñez (1979) autorearekin.

Aipatutako teoria horiek, ahultasun teoriko garrantzitsuak zituzten ikuspegiak izateaz gain, alborapen metodologikoetan ere oinarritu ziren, berrikuspen kritikorik gabe txertatuak betiere, eta indartu egin zituzten aipatutako ikuspegi horiek. Joan den mendearen bigarren zatian ikerketa enpirikoak bultzatu izanari esker, argitara atera ziren alborapen horietako batzuk, jarraian azalduko ditugunak.

3.1. Adin kronologikoa erreferente soziobiologiko gisa

Maddoxek dioen bezala (1996:19), «adin kronologikoaren esanahia eta garrantzia asko aldatzen dira denboran eta espazioan zehar. Gure gizartean adinaren esanahiak, edozein unetan, gure helburu sozialetarako erabiltzen ditugun konstruktuek egokiak izan ohi dira». Gizarte modernoetan, adina funtsezko dimentsioa da gizarte-antolaketan. Sozialki garrantzitsuak diren aldietan banatzen da bizitza. Adin-bereizketak sistematizatu egiten dira, eta adin sozialaren arabera banatzen dira eskubideak eta erantzukizunak (Neugarten eta Danan, 1996). Hala, bereizi egin daitezke bizitza-denbora, gizarte-denbora eta denbora historikoa (Neugarten eta Danan, 1996). Era berean, Schroots eta Birren autoreek (1990) bereizi egiten dituzte denbora edo adin fisikoa, biologikoa,

psikologikoa eta soziala, denbora intrintsekoa eta adin intrintsekoa kontzeptuak txertatuz. Azkenik, denbora erlatiboaren nozioa ere txertatzea proposatu dute Sánchez-Mira eta Bernardi autoreek (2021).

Zahartzea, berriz, prozesu fisiologikoen koktela da, eta pertsonaren heriotza da horren azken emaitza. Bilakaera hori oso desberdina da bakoitzaren arabera. Genetista talde batek eredu molekularrei buruz egindako ikerketa batek lau *ageotipo* edo zahartzeko modu bereizten ditu (Ahadi et al, 2020).

Aitzitik, zahartzearen «arazoa» planteatzeko modua ez datza prozesuan bertan, baizik eta duela hamarkada batzuk ezarri ziren zahartzaroko adin-atalaseen mantentze konbentzionalean, hamarkada batzuk lehenago ezarri baitziren, bizi-itxaropena nabarmen txikiagoa zenean, eta zahartzaroak esanahi indibidual eta kolektibo oso desberdina zuenean (De Santis, 2010).

Osasunaren eta bizi-itxaropenaren ibilbide heterogeneoak daude, eta lotura estua dute faktore sozioekonomikoekin: ikasketa-maila, familia-ingurunea eta ingurune soziala, generoa, etnia, habitata, etab. Ikus, besteak beste: Formosa eta Higgs (2013), Gilleard eta Higgs (2020), Milne (2020), Nico eta Pollock (2022), United Nations (2023, Ch.4), van Raalte *et al.* (2018), Walsh et al. (2021) eta Westwood (2019).

3.2. Zeharkako datuetatik luzetakoetara

60ko eta 70eko hamarkadetan, erabateko aldaketa izan zuten adinarekin lotutako fenomenoek buruzko ikerketek:

«Iraultza horretan funtsezko faktore bat izan zen une desberdinetan jaiotzen diren pertsonak modu erabat desberdinean hazten eta zahartzen direla funtzionamenduari, osasunari eta errendimendu kognitiboari dagokienez, bai eta bizimoduari, jarrerari, jarduerari, gizarte-harremanei eta are bizitza-luzerari dagokienez ere. Pertsonak zahartzeko modua eta adinarekin nola aldatzen diren, neurri handi batean, historikoki kontingentea dela ikusi zen. (...) Ohikoa zen pentsatzea zahartze-ereduak «zeharka» eman zitezkeela (hau da, adin desberdinetako pertsonak denboran une bakar batean konparatuz), besterik gabe 25 urte eta 65 urte arteko desberdintasunak behatuz, esate baterako» (Dannefer, 2021:2).

Horrek guztiak arreta handiagoa eman die luzetarako azterlanei, panel motako datu-kopuru handiak bildu baitira urteetan zehar, hala nola *Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe* (SHARE)¹.

Riley autoreak (1973) erakutsi zuen bezala, kontuan hartu behar dira kohorte desberdinak eta ingurune sozialak horietako bakoitzaren bizi-zikloan duen eragina. Autore horrek adierazi zuen zer falaziatan eror daitekeen arlo horretako ikerketa:

- Belaunaldi-falazia: «egia esan, desberdintasunak ezin zaizkie egotzi kohorteak hazi ziren garaiei bakarrik, baita bizitzan zehar izandako iritzi-aldaketei ere».
- Bizitzaren ibilbidearen falazia, hau da, «kohorteen arteko desberdintasunak kontuan ez hartzea».
- Kohorte-zentrismoa, «zahartzea eta gizarte-aldaketa orokortzeko joera, hobekien ezagutzen dugun kohortearen ikuspegitik».
- Ordezkaritza proportzionalaren falazia. Hori gerta daiteke, baldin eta ezaugarri edo portaera jakin batzuk dituzten kohorteen proportzioetatik abiatuta gizarte osoaren gaineko inplikazioak ateratzean, ez badira kontuan hartzen kohorteen tamainaren aldaketak».
- Konposizio-falazia: «kohorteak osatzen dituzten pertsona-moten aldaketak norbanakoaren zahartze-prozesuei edo kohorteen fluxu-prozesuei egozten zaizkienean oker. Falazia horren iturri gisa, har bedi heriotzak kohorte batean duen eragina».

Ikusi, halaber (Riley, Johnson eta Foner, 1972:81-82).

3.3. Paradigma organizista gainditzea

Egia esan, «pertsona bakoitza eta jaioberrien kohorte berri bakoitzeko kide bakoitza gizaki funtzional bihur daiteke beste gizaki batzuekin izandako esperientzian soilik» (Dannefer, 2021:32). Berger eta Luckmann autoreek (1968:68) diotenez, «gizaki izatera iristeko prozesua ingurunearekin duen erlazioan gertatzen da (...) Giza izakiaren biziraupena ez dago soilik antolamendu sozial jakin batzuen mende: haren organismoaren garapenaren norabidea ere sozialki zehaztua dago».

3.4. Bizitzaren ibilbidearen instituzionalizazio soziala

Martin Kohli autoreak (1986 eta 2007) erakutsi zuen, adina gizarte-antolamenduaren printzipio gisa hartzearen eta esperientzia biografikoa tipifikatzen duen egitura sekuentzialaren ondorioz, bizitzaren ibilbidea funtsezko gizarte-instituzio gisa eratu dela gizarte modernoetan. Bizitzaren ibilbideak hiru fasetan antolatzen ditu bizitza indibidualak: eskolatzea – lana – erretiroa (Henretta, 2003), «bizitzako hiru kutxak» ere deituak (Bolles, 1981). Horietako bakoitzaren barruan hainbat mailaketa aurki daitezke: adinaren arabera hezkuntza-etapak, lanbide-sustapena enpresa eta lan-ibilbide askotan, bai eta erretiratutako biztanleriaren barruko banaketak ere: «adineko-gazteak», «adineko-zaharrak», eta abar.

Adin-tarte bakoitzak betebeharrak eta eskubideak ematen dizkio pertsonari adin kronologikoarekin loturik, «kronologizazioa» Kohlik erabilitako terminoaren arabera. Autore horren ustez, antolamendu horri eusteko bultzada nagusiak lan-mundutik datoz, zeinak gizarte modernoetan sekuentzia profesionalak antolatzen baititu eta aurreko eta ondorengo faseei zentzua ematen baitie.

Settersten eta Hagestad autoreen arabera (1996:179), funtsezko hiru ezaugarri dituzte adinarekin lotutako arau kulturalak: lehenik, jokabide-preskripzioak eta -proskripzioak dira; bigarrenik, adostasun orokorraren babesa dute; eta, hirugarrenik, gizarte-kontrolako hainbat mekanismoren bidez betearazten dira.

Egiturazko eredu nagusi hori «edadistatzat» eta sexistatzat har daiteke, feminizatu eta baztertu egiten baititu etxeko eta familiako lana eta bizitzaren ugalketa (García Pastor eta Viñado, 2013). Era berean, ahaztu egiten ditu bizitzaren ibilbideetan funtsezkoak diren beste une batzuk, «midlife krisi» ahaztua barne, batzuetan «berrogeiko krisia» ere deitua (Giuntella, *et. al.*, 2022).

Baina gaur egungo gizarteetan, gero eta lausoagoak dira bizitzako aldien arteko mugak (Neugarten eta Neugarten, 1996). Pertsonen bizi-ibilbideak gero eta desberdinaoak dira, eta aipatutako hiru fase horiekin parekatutako ezaugarri sozialak heterogeneoagoak dira. Ikerketa aitzindari batean, Hogan autoreak (1981) 1907 eta 1952 urteen artean jaioetako gizonezko iparramerikarren kohorteen ibilbideak aztertu zituen nerabegarotik helduarora. Alde nabarmenak zeuden aztertutako kohortearen arabera ez ezik, klase

1. <https://share-eric.eu/>

sozialaren, nerabegaroko komunitatearen tamainaren eta jatorri etnikoaren arabera ere.

4. Zahartzearen ikuspegia etapa berezi gisa hartzetik bizitzaren ibilbidearen ikuspegira

Adinen azterketan, bizitzaren ibilbidea bada ere, agian, orientazio teoriko nagusia, ez da beti horrela izan. Lehen ikerketa soziologikoez ez zituzten aintzat hartu norbanakoen eta taldeen bizi-historiak eta etorkizuneko ibilbideak. Adierazitako hutsune horien kritikatik abiatuta, ikuspegi zabalago bat hedatu da, bai edukiei dagokienez, bai azterketa-tresnei dagokienez.

Azken hamarkadetan ugaritu egin dira paradigma berri hori hartzen duten azterlanak. Zabalkunde horren erakusgarri dira *Longitudinal and Life Course Studies*² (LLCS), *Advances in Life Course Research*³, *Historical Life Course Studies*⁴ edo *Journal of Developmental and Life-Course Criminology*⁵ aldizkariak eta *Springer Life Course Research and Social Policies*⁶ argitaletxearen bilduma.

Aldi berean, hainbat ekarpen egin dira, azterketa-eremu berri hori aztertzeke metodologia egokiagoa landu nahian. Horri buruz kontsulta daitezke Giele eta Elder (1998), Elder eta Giele (2009), Worth eta Hardill (2015), Bernardi, Huininkb eta Settersten (2019), Brüderl, Kratz, eta Bauer, (2019), Hollstein (2019), Piccarreta eta Studer (2019), eta Rowold, Struffolino eta Fasang (2024), besteak beste.

Bizitzaren ibilbideari buruzko azterketen garapena erraztu egin da, halaber, luzetarako datu-baseak gero eta gehiago direlako (Bynner: 2016).

4.1. Oinarri teorikoak⁷

Bizitzaren ibilbidea adinaren arabera mailakatutako ereduek osatzen dute, eta gizarte-erakundeetan eta

historian txertatuta («*embedded*») daude. Ikuspegi hori testuinguru-ikuspegian oinarritzen da, eta giza garapenerako eta zahartzerako gizarte-ibilbideek denboran eta leku historikoan dituzten inplikazioak nabarmentzen ditu.

Norbanakoek eta taldeek gizartean zehar egiten dituzten hezkuntza-, lan-, familia- eta egoitza-ibilbideak dira *ibilbide sozialak*. Indar historikoez moldatzen dituzte ibilbide horiek, eta gizarte-erakundeek egituratzen dituzte sarritan.

Ibilbideak, edo rolen eta esperientzien sekuentziak, berez, *trantsizioz* edo egoera- edo rol-aldaketaz osatuak daude. Trantsizioen adibide dira gurasoen etxea uztea, aita/ama bihurtzea edo erretiroa hartzea. Trantsizioen arteko denborari *iraupen* deritzo. Iraupen luzeek portaeraren egonkortasuna hobetzen dute, hartutako betebeharren eta sortutako interesen bidez. Ikusi, halaber, (Stauber *et. al.*, 2022).

Trantsizioek estatus- edo nortasun-aldaketak eragin ohi dituzte, bai pertsonalki bai sozialki, eta, horrenbestez, portaera-aldaketarako aukerak zabaltzen dituzte. Bizitzako lehen etapetako trantsizioek ondorioak izan ditzakete bizitza osoko ibilbideetan ere, ondorengo gertaerak, esperientziak eta trantsizioak zehazten baitituzte.

Inflexio-puntuek («*turning points*») funtsezko aldaketa dakarte norberaren bizitzaren norabidean, subjektiboa edo objektiboa izan. Inflexio-puntu batek adin ertainean eskolara itzultzea ekar dezake, adibidez. Inflexio-puntu horietako gehienek lan kontuak hartzen dituzte bereziki, lan-aldaketak eta lan-segurtasunik eza barne, norberaren lan-bizitzaren orientazioa aldatzen duten familia-trantsizioak baino gehiago.

Horrekin batera, Elder, Johnson eta Crosnoe autoreek, Ryderri jarraiki (1965), belaunaldien segidaren azterketatik haratago joatea proposatzen dute, eta kohorte nozioa erabiltzea, gizarte-aldaketen elementu lagungarri gisa. Ikusi, halaber, Alwin eta McCammon (2003) eta Elder eta George (2016). Izan ere, adina eta denbora historikoa lotzen dituzte kohortek. Aldaketa historikoez, askotan, hainbat inplikazio izaten dituzte adin desberdinetako pertsonentzat, hau da, bizitzako etapetan desberdinak diren pertsonentzat. Adin desberdinetako pertsonen esperientzia eta baliabide desberdinak ematen dizkiete egoerei, eta, ondorioz, modu desberdinean egokitzen dira baldintza berrietara.

2. <https://bristoluniversitypress.co.uk/society-for-longitudinal-and-life-course-studies>

3. <https://www.sciencedirect.com/journal/advances-in-life-course-research>

4. <https://hlcs.nl/>

5. <https://link.springer.com/journal/40865>

6. <https://www.springer.com/series/10158>

7. Elder, Johnson eta Crosnoe autoreen lanetan oinarritua (2003:3-13)

Aldaketa historikoak jaiotza-kohorteen bizitzak bereizten dituenean, *kohorte-efektua* sortzen du.

Hori guztia kontuan hartuta, Elderrek, Johnsonek eta Crosnoek bost printzipio paradigmatico proposatu dituzte bizitzaren ibilbidearen teoria oinarritzeko:

- Bizitza osoko garapenaren printzipioa: giza garapena eta zahartzea bizitza osoan irauten duten prozesuak dira.
- Agentziaren printzipioa: norbanakoek, historiaren eta gizarte-inguruabarren aukera eta mugen barruan hartzen dituzten hautu eta ekintzen bidez eraikitzen dute beren bizitzaren ibilbidea.
- Denboraren eta lekua printzipioa: norbanakoen bizitzaren ibilbidea txertatua («*embedded*») dago, eta bizitzan zehar bizi izaten duten denboraren eta leku historikoen arabera da.
- Sinkronizazioaren printzipioa («*timing*»): garapenaren aurrekariak eta bizitzako trantsizioen ondorioak, gertaerak eta portaera-jarraibideak aldatu egiten dira horiek gertatzen diren bizitzako unearen arabera.
- Bizitza lotuen printzipioa: bizitzak elkarren mende bizi izaten dira, eta harreman partekatuen sare horren bidez adierazten dira eragin soziohistorikoak.

Baina, agian, norbanakoen atributuetan oinarritutako azalpen gehiegi egon dira, eta galdu egin da pertsonen gizartean duten posizioaren eta «malgutasunaren» funtsezko garrantziaren ikuspegia, bai gizarte-erakundeena, bai pertsonarena, bizitzan zehar. Beraz, birbideratu egin beharko litzateke emaitza indibidualak aztertzeke ahalegina, bizitzan zehar ereduak sortzen dituzten gizarte indarrei arreta emateko (Dannefer, Kelley-Moore eta Huang, 2016).

4.2. Aldaketak bizitzaren ibilbidearen egituran

Azken hamarkadetan aldaketak izan dira egitura horretan, eta gero eta «desestandarizatuago», «des-instituzionalizatuago» eta «indibidualizatuago» bihurtu da (Macmillan, 2005: 3-4). Alde batetik, familia-egiturek heterogeneotasun nabarmena dute (Hofferth eta Goldscheider, 2016), (Baxter et al., 2022). Eta hori ez da bakarrik familiaren «nukleoaren» osaera desberdinagatik, baita aldi berean bi eta hiru belaunaldi egoteagatik ere (Hünteler, 2022).

Helduarora igarotzeko jarraibideetan ere aldaketa sakonak erregistratu dira (Casal, 1996), (Billari eta Liefbroer, 2010), (Zapata-Gietl et al., 2016), (Schwanitz, 2017), (Berngruber eta Bethmann, 2022), (van den Berg eta Verbakel, 2022). Hala, ikuspegi zaharkituen eta helduaroko errealitate berrien arteko talkak kontraesan garrantzitsuak sortzen ditu gazteentzat (Settersten, Ottusch, eta Schneider, 2015). Antzeko hausturak gertatzen dira hezkuntza-ibilbideetan (Crosnoe eta Benner, 2016) edo belaunaldien arteko laguntza-mekanismoetan ere (Lee eta Manzoni, 2023a).

Are gehiago, bizitzaren ibilbideko hiru etapa klasikoak nahasi egiten dira, atzera-bueltekin eta aldi laburragoen konbinazioekin eta aldaketa ohikoagoekin (Boissonneault, 2021).

4.3. Ikuspegi berria bizitzaren azken faseetarako

Bizitzaren ibilbidearen teoriak ikuspegi guztiz berria eman dio «adineko» biztanleriaren azterketari, aldatu egin baita biztanleria horren egoera bizitzaren gainerako tarteetatik isolatutako izakitzat jotzen zuen ikuspegia, eta ikuspegi orokorra txertatu baita, bai pertsona bakoitzaren bizitzaren ibilbiderako, bai familiaren eta belaunaldien arteko elkarrekintzetarako (Hagestad, 2003), bai kohorte bakoitzaren bizipen historikoaren inpakturako (Settersten, 2003).

Osasuna eta gaixotasuna egoerak badira ere, eta gero eta gehiago halako gisa aztertzen badira ere, denboran zehar garatzen diren eta ondorioak izaten dituzten prozesuak ere badira. George autoreak (2003) faktore sozialen eta gaixotasunaren arteko epe luzeko harremanak erakutsi ditu, urte askotan zehar sortzen diren eta bizitzako aldi bat baino gehiago hartzen duten ereduetan.

Erretiroaren inguruko kezka presente dago bizitza osoan zehar. Ekerdetek dioten bezala (2004:4), «erretiroa jada ez da bizitzaren bigarren erdiko kezka edo gertaera. Egunen batean erretiroa hartuko dugun ideia gero eta presenteago dago heldu guztiengan, baita nerabeengan ere».

Hala, beharrezkoa da zahartzaroko eredu nagusiak berrikustea eta esperientzien aniztasun gero eta handiagoa eta testuinguru sozial aldakorra nabarmentzea, bizitzako azken faseetako trantsizioen aniztasuna kontuan hartuta (Grenier, 2012).

Erretiro-urteen adina jada ez da bizitzaren gainerakotik kanpoko fase bat, bizitzaren ibilbidearen zati bat baizik (Grenier, 2012).

«Zahartze aktiboa» nozioa, bizitzako azken urteetan pertsonen borondatearen irispidean dagoen helburu gisa, erabat berrikusi beharra dago, beraz. Pertsonak «agentzia-marjina» izan dezakeen arren, aurreko etapetan jarraitutako ibilbideek nabarmen baldintzatzen dituzte egon daitezkeen aukerak. Crosnoe eta Elder (2002) autoreek lau zahartze-estilo identifikatzen dituzte, eta, hala, estatus sozioekonomikoak eta osasun-egoerak zahartze-ibilbide batzuetara edo beste batzuetara eramaten gaituzte.

4.4. Heterogeneotasuna bizitzaren ibilbidean

Gero eta azterketa enpiriko gehiagok jarri dute arreta bizitzako eta zahartzaroko egoeren heterogeneotasunean, bereziki (Maddox, 1987) eta (Nico eta Pollock, 2022) autoreek. Hainbat elementuk eragiten dituzte egoeren arteko desberdintasun horiek, hala nola estatus sozioekonomikoak (Hoffmann, 2005) eta Steptoea eta Zaninotto, 2020), giza kapitalak (Castelló-Climent eta Doménech, 2008), familia-egiturak (McLanahan eta Percheski, 2008), arrazak/etnia (Mitra eta Weil, 2014), herrialdeen arteko aldeak (Lu, 2019), alargun-egoerak (Peña-Longobardo, Rodríguez-Sánchez eta Oliva-Moreno, 2021), bakardadeak (Tapia-Muñoz *et al.*, 2022) eta abarrek. Aipamen berezia merezi du generoaren araberrako desberdintasunek nola markatzen dituzten ibilbide heterogeneoak (Madero-Cabib eta Fasang, 2016), (Ilinca *et al.*, 2016) eta (Lee eta Manzoni, 2023b).

Kausalitateen panorama konplexua da, eta, beraz, ikusitako desberdintasunak ezin zaizkio faktore bakar bati egotzi (Sanzenbacher *et al.*, 2017) eta (Holman eta Walker, 2021).

Ildo beretik, beste autore batzuek adierazi dute birplanteatu egin behar direla desgaitasun-egoerak (Grassman eta Whitaker, 2013) eta kalteberatasun-egoerak (Marshall, 2011), (Spini *et al.*, 2013), (Oris *et al.*, 2016), bizitzaren bilakaeraren ikuspegi horretatik.

Baina McMullin autoreak (2000:517) dioten bezala, hori ez zen adinari buruzko teorien barruan kontzeptualki txertatu. Txertatze hori gerta dadin, «aniztasunaren ikuspegiaren oinarritzko premisa da

klasea, adina, generoa eta etnia/arraza elkarri lotutako multzoak direla bizitza soziala egituratzen duten botere-harremanetan. Beraz, teoria bat aniztasuna ikertzeko egokia izan dadin, gutxienez bi irizpide bete behar dira. Lehenik eta behin, klasea, adina, generoa eta etnia/arraza botere-harreman gisa kontzeptualizatu behar dira, eta, bigarrenik, elkarri lotutako botere-hierarkia gisa bildu behar dira, eta ez bereiz eta ez sistema bereizi gisa».

Planteamendu teoriko berri hori gorabehera, Stonek eta bere lankideek (2017) egiaztatu dute azterlan enpiriko asko adin-taldearen arteko batez besteko desberdintasunetan oinarritzen direla oraindik ere, eta ez adin barruko egoeren aldakortasunean arreta handiagoa jartzen.

4.5. Metatutako abantailak eta desabantailak

Dannefer autoreari jarraituz (2003: S327), «Metatutako abantaila/desabantaila (Cumulative Advantage/Disadvantage, CAD) honela defini daiteke: ezaugarri jakin batean (adibidez, dirua, osasuna edo estatusa) norbanakoen arteko dibergentziarako joera sistemikoa denborak aurrera egin ahala». Eta honela jarraitzen du: «dibergentzia ez da kideen posizioak jatorritzko puntuan estrapolatze hutsa; indar-multzo baten elkarrekintzaren ondorioa da. «Norbanakoen arteko dibergentziak» esan nahi du metatutako abantaila/desabantaila ez dela gizabanakoen funtsa, baizik eta populazioena edo beste gizatalde batzuen (kohorteena, esaterako), zeinentzat kideen multzo identifikagarri bat sailka daitekeen».

Herrialdeen arteko azterketa konparatiboek erakutsi dute CADerako joerak sistematikoki aldatzen direla gizartearen artean, eta desberdintasunak ageri dira politika ekonomikoetan eta Ongizate Estatuan. Aldi berean, kohorte desberdinen ibilbideak aztertzen dituzten ikerketek erakusten dute ibilbide partikularrak egiten dituztela, une historikoak markatuta (Schaie eta Willis, 1996:112-116).

Bestalde, CAD ikuspegiak ez du ukatzen ekintza indibidualaren garrantzia, baina egiturazko errealitateen boterean jartzen du arreta, eta horien barruan jardun behar du eragile batek bizitza egokitu zaion munduan jarduteko.

Ikuspegi horretatik begiratuta, pertsonen bizitzaren ibilbidean dimentsio berria hartzen du

heterogeneotasunak; izan ere, bizitzan zehar ditugun metatutako abantailak edo desabantailak (CAD) desberdintasun-egoerak areagotu egiten ditu adineko biztanleriaren artean (Maddox eta Douglass, 1974). Gainera, prozesu interseksionalak dira, non dimentsio sozioekonomiko ugariak elkar indartzen duten adin-tarte horietan klase desberdintasun nabarmenagoak marrazteko.

4.6. Osasuna

Aipamen berezia egin behar zaio arestian aipatutako faktore horiek ekartzen dituzten egoeren eta «azken faseen» aniztasunari. Hala, ELGEk (OECD, 2024) Europar Batasunean minbiziaren aurkako borrokan dauden desberdintasunei aurre egiteko estrategiei buruz egin berri duen ikerketaren arabera, «minbiziaren arrisku-faktore nagusiak nabarmenagoak dira ezaugarri sozioekonomiko apalagoak dituzten pertsonen artean, hala nola diru-sarrera eta hezkuntza maila apalak dituztenen artean» (p.12).

Osasuna, beraz, aldagai nagusi gisa jartzen da, bizitzan zehar izandako ibilbidearen eta haietan zehar metatu diren abantailen eta desabantailen bitartez. Lehenengo emaitza bizi-urteen kopurua da. Baars autoreak (2023) grafikoki adierazten duen bezala, «bizitza luzeak aberatsentzat dira», eta horrek zuzeneko eragina du biziarteko pentsioen sistemaren ondoriozko banaketa desorekatuan (Shi eta Kolk, 2023).

Baina azterketa labur geratzen da, baldin eta bertan sartzen ez badira desberdintasun sozioekonomikoei edo generoaren arabeko desberdintasunei lotutako faktore instituzionalak eta egiturazkoak (Corna, 2013), testuinguru soziohistoriko espezifikoak (Burton-Jeangros et al., 2015), bizitzaren ibilbidearen tartearen arabeko inpaktu diferentziala (Hoffmann, 2005) eta (Hoffmann et al., 2019), erretirora igarotzearen eragina (Lauridsen et al., 2019) edo kohorteen arteko desberdintasunak (Koivunen et al., 2021), besteak beste. Horrek guztiak erakusten du oso konplexua dela aztergaia, eta, beraz, beharreko zuhurtziaz ekin behar zaiola.

5. Osagai ekonomikoa

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, bi ekarpen garrantzitsu aipatu behar dira orain arte azaldutako

bizitzaren ibilbidearen teoriarekin lotuta: a) gizabanakoek beren bizi-zikloan zehar izan duten gastu- eta aurrezpen-dinamika, eta b) belaunaldien arteko truke ekonomikoak koiuntura jakin batean.

Espazio honetan ezin da bi ekarpen horietako bat ere aztertu. Esan beharra dago, Franco Modigliani Nobel Saridunaren (1986) bizi-zikloaren hipotesiaren arabera, pertsonak erabaki adimentsuak hartuko lituzketela adin bakoitzean zenbat gastatu nahi duten erabakitzeke, bizitzan zehar eskura dituzten baliabideak soilik izanik muga. Aktiboak metatzean eta kontsumitzean, langileek erretirorako hornidurak egin ditzakete, eta, oro har, beren adin desberdinetan dituzten beharretara egokitu ditzakete kontsumo-ereduak, adin bakoitzeko diru-sarrerak edozein izanik ere. Dirua aurrezteko arrazoi garrantzitsuenetako bat erretiroa estaltzeko beharra zen. Gazteek aurreztu egingo dute adinekoak direnean eta lan egin ezin dutenean edo lan egin nahi ez dutenean dirua izan dezaten gastatzeko⁸.

Hala, norbanakoen diru-sarreraren eta aberastasun-metaketa gailurra beren lan-ibilbide aktiboaren azken urteetan kokatuko litzateke, Espainiako kasurako *Familien Finantza Inkestan* (Espainiako Bankua, 2022) jasotako ebidentzia enpirikoak erakusten duen bezala, eta aurrerago zehatz-mehatz eztabaidatuko da hori.

Bigarren ekarpenari dagokionez, bi ekarpen baino ez dira aipatu behar: Auerbach-Kotlikoff ereduak (Kotlikoff, 1998), belaunaldi-kontabilitatekoa (*generational accounting*, GA)⁹, eta belaunaldi-ekonomiakoa (*National Transfer Accounts*, NTA), Lee eta Mason autoreek garatua (2011)¹⁰. Azken hori geroago garatu da ordaindu gabeko lan-transferentziak sartzeko (*National Time Transfer Accounts*, NTTA), bereziki genero-ikuspegitik (Seme et al, 2019).

8. Modiglianiren hipotesiaren laburpena, haren kritikarien jarrerak eta ondorengo lanketa ikus daitezke hemen (Deaton, 2005).

9. Analisi kritikoa Williamson eta Rhodes autoreek (2011) eta Espainiako kasurako aplikazioa Abio et al. autoreek. (2005).

10. Espainiako kasurako aplikazioa Patxot et al. autoreek. (2011).

6. Espainiako kasua

Bizitzaren ibilbideari buruzko ikerketa oso urria da Espainian. Salbuespen aitzindaria ikus daiteke Olmo eta Herce autoreetan (2011) eta berrikiago López Gómez autorean (2023). Gazteek helduarorako trantsizioan aurkitzen dituzten arazoetan (Castro Torres eta Ruiz-Ramos, 2024) eta hezkuntza-mailek bizi-itxaropenean eta bizitza osasungarrian duten eraginean (Blanes eta Trias-Llimós, 2021) jarri da arreta nagusia. Baina hezkuntza-maila txikia duten pertsonak hezkuntza-maila handia duten homologoak baino lehenago hiltzen dira eta beren bizitzan zati laburragoa igarotzen dute osasun onarekin, eta, horrez gain, aldaketa handiagoa izaten dute heriotzaren unean eta osasun onaz gozatzeari uzten dioten adinean (Permanyer, Spijker eta Blanes, 2022).

6.1. Zilarrezko Ekonomiaren «targeta»

Zilarrezko Ekonomiaren ikusmoldeak biztanleriaren tarte oso espezifikora murrizten du bere interes-eremua, bi dimentsiotan: a) 50 eta 75 urte bitarteko adin-tartea eta b) errenta-maila eta/edo aberastasun ertain edo ertain-altua duten familia-guneak.

«Target» hori eta azken urteetan gure herrialdean izan duen bilakaera arakatzeko, Espainiako Bankuak (2022) informazio-iturri paregabea eskaintzen du Familien Finantza Inkestaren (FFI) bidez. 2002tik hiru urtean behin egin da inkesta hori, baina 2020tik aurrera bi urtean behin egiten da.

Datuak adin-tarteen ikuspegitik aztertzerakoan, analista batzuek ondorio nahasgarriak atera dituzte, familien errentaren eta aberastasunaren batez besteko zifrak kontuan hartuta, baina kontuan hartu gabe, Espainiako Bankuak berak ohartarazi duen bezala, «aldagai garrantzitsu gehienetan, aktiboei eta zorrei dagozkienetan adibidez, haien banaketek oso balio handiak erakusten dituztela familia-kopuru txiki samar batentzat. Kasu honetan, erdiko balioa batez bestekoa baino hobeto hurbiltzen da banaketaren balio tipikoetara; beraz, hori da dagozkien koadroetan sartu den estatistikoa» (id, 2022:7n7). Hala, hurrengo koadroak etxekoen unitateen aberastasun garbiaren erdiko balioa jasotzen du, familiaburuaren adinaren arabera. Ikus daitekeenez, aberastasun garbiaren erdiko balioa espero den bizi-zikloaren profilaren araberrakoa da, eta 65 eta 74 urte bitarteko familiaburuak duten familia unitateetan iristen da maximora, hau da, errenta-maila handiena lortzen den adina baino pixka bat geroago (id, 2022:10).

Familiaburuaren aberastasun garbia adinaren arabera (mila eurotan) Erdiko balioa							
	2002	2005	2008	2011	2014	2017	2020
Etxe guztiak	124,26	206,35	198,41	159,71	124,68	116,61	122,15
35 urtetik beherakoak	65,14	87,25	85,17	72,65	4,96	5,37	23,97
35 eta 44 artean	117,67	193,25	171,13	122,78	71,99	65,79	70,00
45 eta 54 artean	163,03	268,69	225,50	172,00	129,34	116,03	116,48
55 eta 64 artean	164,16	281,52	308,97	246,70	194,74	176,97	160,65
65 eta 74 artean	131,90	221,68	219,41	204,17	215,52	183,14	197,93
75 urtetik gorakoak	99,00	165,50	173,04	162,70	132,06	131,38	165,19

Iturria: Espainiako Bankua eta neuk egina

Adin-segmentu gazteenetan izandako gorabeherak 2008an hasitako krisi ekonomikoaren eragin handia islatzen dute. Bestalde, FFIk ematen ez badu ere, oso nabarmena da adin-tarte bakoitzaren barruko sakabanaketa, gorago garatu den argudioari jarraiki.

Batez bestekoa/erdiko balioa ratioa kalkulatzeko bada, adin-tarte bakoitzeko sakabanaketaren proxy gisa, sakabanatze hori, tradizionalki handiagoa izan ohi zena adinekoen tartetean, baxuenetara ere hedatu da

orain, eta horrek, zalantzarik gabe, gazte-segmentu handien lan- eta ekonomia-prekarietatea islatzen du.

6.2. Zilarrezko Ekonomia egun bateko lore gisa?

Gazteen ekonomia- eta finantza-egoeraren azken aldiko bilakaera horrek zalantzak sortzen ditu merkatu horren etorkizunari buruz. Dagoeneko

Gastu sanitario publikoa murrizteak ondorio argiak ditu: langileak eta baliabideak murriztea (azpiegiturak, ekipamendua), gainkarga asistentziala eta motibaziorik eza. Hori horrela, zerbitzuen eskaintzak ezin ditu premiak ase: zerbitzuak masifikatu eta itxaron-zerrendak luzatu egiten dira.

medikuaren kontsulta eskatu zutenen % 91,5ek egun bat baino gehiago itxaron behar izan zuten, batez beste 8,57 egun. Ezin da onartu.

Era horretan, osasun-arazoa diagnostikatu ezin eta gaixo askok larrialdietara jo behar dute. Halaber, itxi egin dira larrialdi-zerbitzu anbulatorioak, eta, hortaz, ospitaleetako larrialdi-zerbitzu asko gainezka egoten dira. Gaixoek orduetan egon behar izaten dute zain, eta desegoki artatzen dituzte. Ospitaleratu beharra duten gaixo batzuek orduetan egon daitezke behin-behineko oheetan, larrialdietako pasilloetan. Larrialdien gaineko presio horren ondorioz, programatutako ebakuntzak atzeratu, itxaron-zerrendak areago luzatu eta gurpil zoro bat sortzen da, arretaren kalitatea hondatuz eta langileei gainkarga asistentziala eraginez.

Errenta ertain edo altuko pertsonen egoera hori «modu pribatuan» konpontzen saiatzen dira, osasun pribatura joz, aseguru-poliza pribatu bat kontratatuz edo kontsulta pribatu batera joanez. Era horretan ere «pribatizatzen» da gastu sanitarioa, ordaindu dezaketenei ordainaraziz.

Koordainketak eta botikak desfinantzatzea

Gastu sanitario publikoa pribatizatzeke beste modu bat botika edo produktu sanitario baten finantzaketa osoa

6. Osasun Ministerioa, *Sistema de información de listas de espera del Sistema Nacional de Salud*: <https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/estadisticas/inforRecopilaciones/listaEspera.htm>

edo zati bat kentzea da. Gaixoak (ahal duenak) bere poltsikotik ordaindu behar du botika baten edo produktu sanitario baten hainbesteko bat (lentillak, audifonoa, gurpil-aulkia...). Baina batzuek ezin dute ordaindu. Finantza-krisiaren ondorioz, 16/2012 Dekretuak murrizketak ezarri zituen pentsiodunen botiketan, eta handitu egin ziren langile aktiboen koordainketak. Hori osasuna eskuratzeko oztopoa izan da. Hala, Osasun Ministerioaren 2023ko uztaileko Barometro Sanitarioak⁷ honako hau galdetu zuen, koordainketek eragindako estaldura-falta (pribatizazioa) dela eta: «Azken 12 hilabeteotan, dirua iristen ez zaizulako hartu gabe utzi behar izan al duzu osasun publikoko medikuak agindutako botikaren bat?».

Baietz erantzun zuen biztanleen % 4k. Beraz, 1.917.000 pertsonak ezin izan zituzten hartu behar zituzten botikak, haiek erosteko dirua iristen ez zitzaielako. Ez dira bat edo bi. Pertsona askori urratzen zaie kalitatezko arreta sanitario osoa jasotzeko eskubidea.

Zerbitzu sanitarioei buruzko iritzi publikoa

Osasun Ministerioaren Barometro Sanitario berak zerbitzuen kalitateaz galdetu zuen. 2023ko uztailean, osasun publikoak ongi edo oso ongi funtzionatzen zuela erantzun zuen % 58,1ek. Oraindik ere, Espainiako osasun publikoak kalitatezko arreta ematen du. Baina gizartearen balorazioak behera egin du masifikazioagatik, gainkarga asistentzialagatik, itxaron-zerrendengatik, etab. Izan ere, 2010ean % 73,88k zioten osasun publikoak ongi edo oso ongi funtzionatzen zuela. 15

Osasunaren finantzaketa publikoa murriztea ez da arazo bakarra. Gastu sanitarioa pribatizatu egin da, gastu horren zati bati gaixoei bizkarreratuta. Baina, horretaz gain, zerbitzuak azpikontratatu egin dira, hau da, kudeaketa pribatuaren esku utzi da finantzaketa publikoa duten zerbitzuen zati bat: hala gertatzen da botika eta produktu sanitarioak erosteko orduan, bai eta zenbait zerbitzu asistentzial emateko orduan ere, itun, kontzesio eta bestelako kontratuen bide.

puntu gutxiago dira. Egoera okertu izanaren sentsazio esanguratsua.

Halaber, CISen⁸ Barometroak galdetu zuen zein den pertsona bakoitzaren problema nagusia. 2023ko azaroko azken inkestaren arabera, osasuna da espainiarren bigarren problema larriena (% 30,5i baino gehiagori eragiten die kezka, eta 2010ean % 3,5 baino ez ziren).

Zerbitzuen kalitateak okerrera egin duenez, errenta ertaineko edo altuko pertsonak osasun pribatura jotzen dute. Galdu egin da osasun publikoarekiko estimazioa, «ez dit konpontzen nire problema», eta agintari publikoek zerbitzuak hobetzeko exigentziak indarra

galtzen du. Alegia, «ahal duena salba dadila». Egoera horretan, ongi iritzi ohi zaio *zergen jaitsiera orokorrari*, zerbitzua ona ez bada ez baitugu ordaindu nahi (baina jaitsiera horrek mesede egiten die errenta altuenei, eta diru-sarrerara fiskalak galtzeak kalte handiagoa egiten die behartsuenei, politika publikoak murriztu egiten baitira).

Datozen hilabeteetan eta urteetan zuzentzen ez bada, gastu sanitario pribatua handitzeko joera dago, gastu sanitario publikoaren gabeziak asetzeko. Horrek zerbitzuen kalitate kaskarragoa eragingo du, zerbitzuak denok berdin eskuratu ezina eta estimazio sozial eta babes falta.

Finantzaketa publikoaren gastuaren kudeaketa pribatizatzea

Osasunaren finantzaketa publikoa murriztea ez da arazo bakarra. Gastu sanitarioa pribatizatu egin da, gastu horren zati bati gaixoei bizkarreratuta. Baina, horretaz gain, zerbitzuak azpikontratatu egin dira, hau da, kudeaketa pribatuaren esku utzi da finantzaketa publikoa duten zerbitzuen zati bat: hala gertatzen da botika eta produktu sanitarioak

7. Osasun Ministerioa, *Barómetro Sanitario 2023 (segunda oleada)*, Ikerketa Soziologikoen Zentroa. 2023ko uztaila: https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/estadisticas/BarometroSanitario/Barom_Sanit_2023/Barom_Sanit_2023_2a_oleada/Marginales_2a_oleada_Es3414_def.pdf

8. Ikerketa Soziologikoen Zentroa, *Barómetro CIS*, 2023ko azaroa: <https://www.cis.es/documents/d/cis/es3427mar-1->

erosteko orduan, bai eta zenbait zerbitzu asistentzial emateko orduan ere, itun, kontzesio eta bestelako kontratuen bidez. Kopuru handi bat Muface, Isfas eta Mugejuren gastu sanitarioa da, eta lan-istripuen arreta sanitarioa, hein handi batean, aseguru-etxe sanitario pribatuen bidez egiten da (4.655 milioi euro 2021ean). «Zilarrezko ekonomiak» diru hori ere poltsikoratu eta handitu nahi du.

2021ean 9.227 euro gastatu ziren hainbat zerbitzu emateko itunetan (enpresa pribatuekiko kontratuak)⁹. Farmazien gastua gehitzen badiogu, 2021ean 12.808 milioi eurokoa, hori ere zerbitzu sanitarioen eta farmazeutiko-elkargoen arteko itunen bidez egiten baita, guztira gastu sanitario publikoaren 26.690 milioi euro kudeatzen dira modu pribatuan, hau da, 2021eko gastu sanitario publikoaren % 28,18.

Monopolioen problema eta abusuzko irabaziak botiketan

Gastu sanitario publikoa batere eraginkorra ez den partida bat gastu farmazeutikoa da, irabazi pribatu bihurtzen baititu sistema publikoaren baliabide oso garrantzitsuak. Osasun Sistema Nazionalak 22.018 milioi euro ordaindu zituen 2022an: ospitaleetako gastu farmazeutikoan 8.895 milioi euro eta farmazietako gastu farmazeutikoan 13.123 milioi euro¹⁰. Gastu hori handituz joan da, pertsonaleko eta inbertsioetako gastuaren bizkar. Gure kalkuluen arabera, partida horretako gehiegizko

gastua, sendagai berrien abusuzko prezioen ondorioz, urtean 10.000 milioi eurotik gorakoa da¹¹.

Sendagai berriak garestiak dira gobernuek konpainiei monopolioa ematen dietelako beren produktuak «esklusiban» merkaturatzeko, 20 urtez. Epe horretan, fabrikazio-kostutik oso gora dauden salneurriak ezar ditzakete. Monopolioen aitzakia da kopuru gehigarri hori sendagai berriak ikertzeko dela. Nolanahi ere, 1995ean monopolioak orokortu zirenetik, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko Alderdiei buruzko akordioaren arabera, ikerketarako beharko zena baino askoz altuagoak izan dira enpresen prezioak. Enpresa farmazeutikoek salmenten gainean lortutako irabaziak, fabrikazioa eta I+G ordaindu ondoren, gainerako enpresa industrial ez-farmazeutikoek lortutakoa baino lauzpasei aldiz handiagoak dira. Enpresek eta gobernuek ezarritako prezioak fabrikazio-kostura doituko balira, gehi I+G kostua, gehi gainerako industrien mailako irabazia, Espainiako Osasun Sistema Nazionalak 10.000 milioi euro aurreztu litzake. Eta EBko osasun-sistema publikoak 80.000 milioi eurotik gora aurreztuko luke.

Patenteen eta monopolioen eredu horrek milaka milioi alferrik gastatzea dakar. Baina, gainera, eredu horrek ez du balio ustez onartu zenerako: ez du ikerketa berritzailea handitzen. Enpresek ikerketa

inkrementalean inbertitzen dute, lehendik dauden produktuen hobekuntza txikitzen, horrela monopolioak eta eskusibotasunak berriztatzen. Ez dute inbertitzen herritarren kezka diren osasun-problema ikertzen. Inbertsio publiko zuzenez finantzatzen da benetan berritzailea den ikerketa. Baina, ondoren, enpresek unibertsitateari edo erakunde publikoei ikerketa hori erosi eta patentatu egiten dute, monopolio-eredua errepikatuz. Hala ikusi zen COVID-19ko pandemian.

11. Gálvez, R. eta Lamata F., «Monopolios y precios de los medicamentos: un problema ético y de salud pública», Fundación Alternativas: <https://fundacionalternativas.org/publicaciones/monopolios-y-precios-de-los-medicamentos-un-problema-etico-y-de-salud-publica/>

9. Osasun Ministerioa, *Estadística de Gasto Sanitario Público 2021*:

<https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/estadisticas/inforRecopilaciones/gastoSanitario2005/home.htm>

10. Osasun Ministerioa, *Indicadores sobre gasto farmacéutico y sanitario*:

<https://www.hacienda.gob.es/es-ES/CDI/Paginas/EstabilidadPresupuestaria/InformacionAAPPs/Indicadores-sobre-Gasto-Farmac%C3%A9utico-y-Sanitario.aspx>

Izan ere, erosteko ahalmena duten pertsonei zerbitzuak eskaintzea interesatzen zaio osasun pribatuari. Osasun publikoa txartzen bada, adinekoentzako zerbitzuak okerragoak izango dira. Adineko gutxik ordaindu dezakete osasun publikoak gaur egun eskaintzen duen guztia estaltzen duen aseguru pribatu bat.

Gobernuek ikerketa finantzatu zuten dirulaguntza zuzenen bidez eta erosketak aurrez eginez. Baina enpresen esku utzi zituzten jabetza intelektualeko eskubideak, eta kostatu baino 10 edo 20 aldiz garestiago saltzen utzi zieten. Abusuzko prezio horiek eta pandemiaren hasierako ekoizpen mugatuak pandemia luzatzea eragin zuten, eta birusaren aldaera berriak sortzea. Horren ondorioa izan da kostutik oso gora dagoen gastua, ordaindu dezakegun herrialdeentzat, eta produktuak eskuratu ezina, diru-sarrera ertaineko eta apaleko herrialdeentzat. Prezio justuak egon balira, mundu osoa txertatuko zen diru-sarrera altuko herrialdeetako biztanleak txertatu ziren erritmo berean, eta bederatzi milioi heriotza saihestuko ziren. Aldiz, enpresa farmazeutikoek, bi urtean, 200.000 milioi eurotik gora irabazi zuten COVID-19aren kontrako txertoekin eta bestelako produktu sanitarioekin: abusuzko irabazi latza.

Hainbeste irabaziri esker, industria farmazeutikoak babestu egin ditzake profesional sanitarioak, elkarte medikoak, aldizkari zientifikoak, etab., haien lan egiteko modua baldintzatuz, garestiagoak diren preskripzioak bultzatuz, edo beharrezkoak ez direnak, eta kalteak sortuz: ia 200.000 pertsona hiltzen dira urtero Europar Batasunean arrazoi horrengatik.

Gastu sanitario pribatua: txanponaren beste alde

Osasun publikoak pertsonaleko eta inbertsioetako gastuak murrizten zituen bitartean, itxaron-zerrendak luzatuz eta arreta kaskartuz, osasun pribatuak bere zerbitzuak eskaintzen zituen, bai bezero pribatuentzat bai zerbitzu sanitarioentzat, eskaerari erantzun ezin eta «kanpora ateratzen» baitzituen ebakuntza kirurgikoak edo prozesu diagnostikoak.

Horrela, 2010etik 2021era, asistentzia espezializatu anbulatorioaren gastu sanitario pribatua % 83,74 hazi zen, 7.190 milioi euroraino. Gaixo akutuen ospitaleratze-gastua % 119,81 hazi zen, 4.106 milioi euroraino. Sendagaien gastu pribatua % 87,96 hazi zen, 6.605 milioi euroraino. Eta gailu terapeutikoen gastu pribatua (lentillak, audifonoak, protesiak, etab.) 8.784 milioi eurokoa izan zen, % 47,6 hazita.

Osasun-aseguru pribatuak ere hazi dira, 2021ean 12 milioitik gora aseguratu egon arte, 2011ko 8,5 milioiren aldean¹². Bolumen ekonomikoa 9.091 milioi eurokoa izan zen 2021ean, 2010eko 4.811ren aldean, % 88,96 hazita (aldiz, osasun publikoa, euro arruntetan, % 26,2 hazi zen). Aseguruak gazteengan kontzentratu ohi dira. Espainiarren % 25,46k dauka osasun-aseguru pribatua, baina 61 urtetik gorakoen % 19,8k bakarrik. Osasun-aseguruen zenbait enpresak ez diete polizarik eskaintzen 70 edo 75 urtetik gorakoei.

Osasunaren merkatua eta zilarrezko ekonomia. Nora garamatza?

2009ko finantza-krisia baino lehen eta hurrengo urteetan, krisiaren eragile edo onuradun izandako finantza-erakundeek EBko gobernuei gastu publikoaren murrizketak ezarri baino lehen, Espainiako osasun publikoak, bere gorabeherekin, prestazio, zerbitzu eta emaitza txukunak zituen, eta kostuari aurre egiteko gai ginen, gure errenta-mailarengatik.

2009ko krisitik aurrera, eta batez ere 2012tik aurrera (16/2012 Errege Lege Dekretua), gastu sanitario publikoa murrizteak okertu egin zuen Osasun Sistema Nazionala. Murrizketez gain, gastu sanitario publikoa

12. *Memoria Social del Seguro 2022*:
<https://www.unespa.es/main-files/uploads/2023/05/memoria2022.pdf>

kudeatzeko politika batzuk ere oso txarrak izan ziren (koordainketak ugaritzea, sendagaiak neurritz gain garestitzea, kontzesioak, azpikontratazioak, etab.), osasun publikoa ahulduz, eta kalitatea eta estimazio soziala galduz.

Aldi berean, osasun pribatua eta enpresa farmazeutikoak egoeraz baliatu eta hazi egin ziren. Izan ere, erosteko ahalmena duten pertsonen zerbitzuak eskaintzea interesatzen zaio osasun pribatuari. Osasun publikoa txartzen bada, adinekoentzako zerbitzuak okerragoak izango dira. Adineko gutxiak ordaindu dezakete osasun publikoak gaur egun eskaintzen duen guztia estaltzen duen aseguru pribatu bat.

Osasun pribatuak osatu egin ditzake konfort-zerbitzu batzuk (banakako gela, espezialista hautatzea), baldin eta osasun publikoak ongi funtzionatzen badu eta osasun-arazoak egoki konpontzen baditu. Gastu sanitario osoaren % 10-20 pribatua izatea egokia izan daiteke, baina handitzen bada, osasun publikoa infrafinantzatu egingo da. Gastu sanitario publikoaren % 10-20 kudeatzea zentzuzkoa izan daiteke (itun, garraio-zerbitzu edo bestelakoen bidez), baina, hortik gora, kudeaketa sanitario publikoa hondatu egingo da. Espainiak, ikusi dugun moduan, gainditu egin ditu arrisku-mugak.

Ez da ahaztu behar aseguru-poliza pribatuek ez dietela denei estaldura bera eskaintzen, ez eta arreta handiagoa premiaren arabera, ordaindu dena gorabehera. Urrezko, platinozko, diamantezko eta bestelako polizak daude, prestazio desberdinak eskaintzen dituztenak, polizaren prezioaren arabera.

Osasun pribatuaren helburua: AEBen eredua

Osasun-aseguruen enpresa batzuen eta ospitale-multzo pribatu batzuen helburua zerbitzu publiko guztiak hornitzea da, kudeaketa pribatuaren bidez (90.000 M€-ko merkatu potentziala), eta gastu sanitario pribatua handitzea, AEBen mailaraino (beste 50.000 M€). Eta, bestalde, enpresa farmazeutikoak gastu farmazeutiko osoa handitzen saiatuko dira (30.000 M€ gaindituz).

Horregatik, politika neoliberalak osasun-sistema publikoa desegokia, zurrana eta kaskarra dela sinetsarazi nahi dute, eta osasun-zentro publikoetan

gastua ez handitzea defendatzen dute, langileak ez ugaritzea, ekipamendua ez berriztatzea, Osasun Ministerioa ez indartzea, eta, aldiz, itunak eta «Muface eredua» zabaltzea.

Era horretan, prozesu deskapitalizatzailearen bidez, osasun publikoak kalitatea eta estimazio soziala galtzen badu, gastu sanitario pribatua handituz joango da.

AEBetako eredu sanitarioaren eta soziosanitarioaren emaitza gastu sanitarioa BPGa halako bi izatea da, eta osasunaren arloko emaitzak kaskarragoak izatea. Izan ere, AEBetako bizi-itzaropena 76 urtekoa zen 2021ean, eta Espainian 83 urtekoa: zazpi urte asko dira¹³.

BPGarekiko gastu sanitario publikoa dela eta, AEBetan % 10,68koa zen 2020ean, eta Euroeremuan % 8,59koa¹⁴. Baina kudeaketa desegokiaren ondorioz, osasun publikoak AEBetako biztanleriaren % 50 bakarrik estaltzen du (adinekoak Medicare bidez eta errenta apalak Medicaid bidez) eta gainerako herritarrek aseguru pribatuak egin behar dituzte. Aldiz, Europar Batasunean, gutxiago gastatuta, osasun publikoak estaltzen du herritarren % 90-100. Estatu Batuetako eredua oso desegokia da, oso zatikatua, asko bideratzen du kudeaketa pribatura eta azpikontratazioen eta bitartekarien hainbat maila ditu.

Sistema horrek, bestalde, garestiagoa izan arren, okerrago asetzen ditu premiak, batik bat errenta apaleko pertsonenak. AEBetan adinekoak estaltzen dituen Medicare osasun-aseguru publikoa gorabehera, 65 urtetik gorako % 8,5ek maileguak eskatu behar izan zituzten faktura sanitarioak ordaintzeko, estali gabeko premiengatik¹⁵. Gainera, adinekoen artean, zor sanitarioa da porrot egitearen arrazoi nagusia. Eredua horretarantz joan nahi dugu?

13. World Bank Data:

<https://data.worldbank.org/indicator/SP.DYN.LE00.IN>

14. Ibidem.

15. Consumer Financial Protection Bureau, *Medical debt among older adults before the pandemic*:

<https://www.consumerfinance.gov/consumer-tools/educator-tools/resources-for-older-adults/data-spotlight-medical-debt-among-older-adults-before-pandemic/>

2022ko maiatzaren 15ean *Tribunen* argitaratutako «The Tory Plan for Stealth NHS Privatization» artikuluan Christopher Thomas-ek salatzen duenez¹⁶, gobernu kontserbadoreak Osasun Zerbitzu Nazionala (NHS) infrafinantzatu izanak hazi egin du gastu sanitario pribatua, ezkutuko pribatizazioa eraginez. Joera horrek ahuldu egiten du NHSarekiko babes publikoa. AEBak harro zeuden NHSaz, baina sistema bidegabea ari da bihurtzen, zenbait erabaki politikorengatik.

Ingalaterran, 1980ko hamarkadan hasi zen aldaketa neoliberala. Ondoren, 2010eko krisiari aurre egiteko austeritate-neurriek eta COVID-19aren pandemiak gogor erasan diote NHSari. Izan ere, COVIDaren aitzakiaz, normaldu egin dira aurreko urteetan sortutako itxaron-zerrenda izugarriak. Neoliberalak diotenez, sistema sanitario publikoa desegokia delako gertatu da. Berez, beste batzuk dira arrazoiak: langile-falta, lan-baldintza txarrak, inbertsio-falta, etab. Aukera politiko bat da.

Ordaindu dezakeenak itxaron-zerrenda saltatu eta osasun-aseguru bat kontratatzen du, edo ordaindu egiten ditu kontsultak edo probak. Baina errenta ertaineko eta apaleko askok ezin dute ordaindu, eta gero eta gehiagok gastu medikoak ordaintzeko laguntza eskatu behar izaten diete senideei eta lagunei.

Erdi-mailako klaseek osasun pribatuan bilatzen badituzte zerbitzu sanitarioak, NHSak okertuz jarraituko du, babes soziala galduko du, osasun publikoa kalitate gutxikoa izango da eta adinekoentzat eta pobreentzat bakarrik izango da.

M. V. Zunzunegui eta kolaboratzaileek 2022ko ekainaren 23an *Epidemiología* aldizkarian argitaratutako «The impact of Long-Term Care Home Ownership and Administration Type on All-Cause Mortality from March to April 2020 in Madrid» artikuluan diotenez¹⁷, COVID-19ak hildako gehiago eragin zituen titulartasun publikoa eta kudeaketa pribatua zuten egoitzetan: hilkortasuna % 7,4koa izan zen kudeaketa publikoa zuten egoitzetan, eta % 21,9koa «zeharkako» kudeaketa zuten egoitzetan.

16. <https://tribunemag.co.uk/2022/05/nhs-private-healthcare-industry-growing-britain>

17. <https://www.mdpi.com/2673-3986/3/3/25/htm>

Zerbitzuak kanporatzearen ondorioz, langile gutxiago daude egoiliar bakoitzeko, soldatak apalagoak dira, ez da hainbesteko kualifikazioa eskatzen, irabaziak akziodunentzat desbideratzen dira instalazioetan inbertitu beharrean, etab.

Ildo berean, zerbitzu sanitarioak sektore pribatura kanporatzeaz eta horrek hilkortasun saihegarriarekin duen harremanaz idatzi zuten Benjamin Goodair eta Aaron Reeves-ek 2022ko uztailean *The Lanceten*, eta bertan diotenez, 2013tik 2020ra, zerbitzu sanitarioak kanporatzeak 557 heriotza saihegarri eragin zituen¹⁸.

Ospitale publikoen kudeaketa pribatizatzearekin batera handitu zen hilkortasun saihegarria, segur aski zerbitzuen kalitatea txartu zelako. Pribatizazioaren aldeko argudioak (lehiakortasunaren abantailak, malgutasuna, kudeaketaren autonomia, etab.) okerrak direla frogatu da: gastuak murriztu dira, langile gutxiago daude, kualifikazio gutxiago dutenak, soldata apalagoekin, etab.

Helen O'Connor-ek ere zerbitzuak kanporatzearen ondorioak salatu zituen 2022ko ekainaren 20ko *Tribunen*: «Londresko St George ospitalean, Mitie azpikontratazio-enpresako langileak greban daude, lan-baldintza duinak eskatuz, bai eta beren kontratuak NHSra itzultzea ere... NHSa pribatizatzeak gaixoengan duen eragina erakusten du lehia horrek. Langile-murrizketen ondorioz, zenbait gune ezin dira ongi garbitu, infekzioen arriskua dago...»¹⁹.

Kudeaketa publikoa egokiagoa dela erakusten du kudeaketa publikoaren eta pribatuaren «Osasunaren eta Aseguru Medikoen Administrazioa» konparatzeak. Osasun Ministerioaren Kontu Sistemaren arabera, 2021ean, osasun publikoan, kudeaketa-gastua gastu sanitario publikoaren % 1,68 izan zen. Osasun pribatuan, berriz, kudeaketa-gastua gastu sanitario pribatuaren % 5,69 izan zen.

18. Goodair, B. eta Reeves A., «Outsourcing health-care services to the private sector and treatable mortality rates in England, 2013-20: an observational study of NHS privatization», *The Lancet Public Health*, 2022ko uztailak 1: [https://www.thelancet.com/journals/lanpub/article/PIIS2468-2667\(22\)00133-5/fulltext](https://www.thelancet.com/journals/lanpub/article/PIIS2468-2667(22)00133-5/fulltext)

19. O'Connor, H., «Get Outsourcing Out of Our Hospitals», *Tribune*, 2022ko ekainak 20: <https://tribunemag.co.uk/2022/06/mitie-gmb-strike-st-georges-hospital-workers-outsourcing>

Zerbitzu sanitario publiko onak berreskuratzea eta sendotzea adinekoentzat eta gizarte osoarentzat

Erosteke ahalmen handiko adinekoei aisiako edo luxuzko zerbitzu osagarriak eskaintzea balitz (etxebizitza dotoreagoa, auto azkarragoa, telebista handiagoa), ez genuke ezer *zilarrezko ekonomiaren* kontra. Ahal eta nahi duenak luxu hori ordainduko luke.

Baina *zilarrezko ekonomiak* zerbitzu sanitarioetan jartzen baditu begiak, adinekoek garesti ordainduko dute, eta horren kontra gaude. Arreta sanitarioa eskubidea da. Eta pertsona guztiok, baita adinekook ere, zerbitzu sanitario publiko ona jasotzeko eskubidea dugu, pertsonak premien arabera artatuz eta ez maila ekonomikoaren arabera. Osasuna *merkatu* bilakatzen bada, adinekook asko galduko dugu.

Aseguru edo zerbitzu sanitario pribatu batek estaldura zabala baldin badu adinekoentzat, haiek kontsumitzen baitituzte zerbitzu sanitario gehien, oso garestia izan behar du errentagarria izateko. Eskuraezina izango litzateke pentsiodun gehienentzat.

Prezio horiek ordaindu ditzaketen adinekoek, baina, ez lukete aseguru pribatua kontratatuko osasun publikoak zerbitzu ona emango balie, kalitate profesional onekoa, arrazoizko itxaron-zerrendak dauzkana, etab. Zerbitzu publikoaren kalitatea okertuz gero bakarrik kontratatuko dituzte zerbitzu pribatuak.

Horregatik, botere ekonomiko batzuek osasun-sistema publikoa ahultzea bilatzen dute, aberatsenentzako *zilarrezko ekonomia zabaltzeko*. Herritar batzuentzat agian ona izango da (ez da ziur), baina gehienentzat hondamendia izango da. Adinekoek osasungintza kaskarra edukiko dute, bertako langileek ez dute motibaziorik izango, ez baliabiderik ez ekipamendu berriztaturik. Zilarrezko ekonomia, osasungintza eta zerbitzu soziosanitarioetan, oso negozio txarra da adinekoentzat.

Hori dela eta, adinekook osasun publiko ona defendatu behar dugu, finantzaketa publiko nahikoa eta kudeaketa publiko duena, hori baita eraginkorra. Adinekook osasuna bakean uzteko esan behar diegu *zilarrezko ekonomiaren* sustatzaileei. Saiatu daitezela beste sektore batzuetan aberasten. Baina ez hemen.

Baina *zilarrezko ekonomiak* zerbitzu sanitarioetan jartzen baditu begiak, adinekoek garesti ordainduko dute, eta horren kontra gaude. Arreta sanitarioa eskubidea da. Eta pertsona guztiok, baita adinekook ere, zerbitzu sanitario publiko ona jasotzeko eskubidea dugu, pertsonak premien arabera artatuz eta ez maila ekonomikoaren arabera. Osasuna *merkatu* bilakatzen bada, adinekook asko galduko dugu.

Osasun ona finantzatu ahal izateko, funtsezkoa da zerga-sistema indartzea, Espainiako Konstituzioak dioen moduan (31. artikulua: «Guztiak lagunduko dute gastu publikoen euspean, bakoitzak ahal duen gaitasun ekonomikoaz zerga-sistema baten bidez; berau berdintasun- eta aurrerapen-printzipioetan oinarriturik»). Sistema progresiboa, gehien dutenek gehiago ordaintzen dutela. Hori, gaur egun, Espainian ez da betetzen eta betearazi egin behar dugu.

2022an, Eurostat Data Baseren arabera, Espainiako sarrera fiskalak BPGaren % 38 izan ziren²⁰. 19 herrialdeen Euroeremuan, % 41,9koa izan zen. 4 punturen aldea, 50.000 milioi eurotik gorakoa.

20. Eurostat Data Bas, *Main national accounts tax aggregates*: https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Tax_revenue_statistics

Halaber, iruzur fiskala 70.000 milioi eurokoa da gure herrialdean²¹.

Bestalde, Frantzia sarrera fiskalak % 48koak izan ziren, Belgika % 45,6koak eta Austria % 43,6koak. Hots, Frantziako presio fiskala eduki bagenu, 130.000 milioi euro gehiago bilduko genituen. Espainiako errenta-mailak posible egiten du sistema fiskalak fortuna handiak eta korporazio handiak zergapetzea eta iruzur fiskala saihestea, urtean 70.000-80.000 milioi euro gehiago bilduz.

Aldi berean, kudeaketa optimizatu eta gastu farmazeutikoa murriztu behar da, prezioak apalduz

eta preskripzioak hobetuz. 10.000 milioi euro aurreztu litezke horrela. Garrantzitsua da Osasun Sistema Nazionalaren koordinazioa eta kohesioa hobetzea ere, desberdintasunak saihesteko eta Autonomia Erkidegoetako zerbitzu sanitarioen arteko sinergiak areagotuz. Horretarako, indartu egin behar da Osasun Ministerioaren zeregina²².

Gure errenta-mailaren arabera baliabideekin, BGParen % 8,5-% 9 gastu sanitario publikoari eskainiz, eta egoki kudeatuz, Espainiako osasunak berreskuratu eta hobetu egin dezake mende honen hasieran erdietsi zuen kalitatea. Eta premien arabera zerbitzuak eskaini ahalko dizkie adinekoei eta gizarte osoari. ■

21. Murphy, R., «The European Tax Gap»: https://www.socialistsanddemocrats.eu/sites/default/files/2019-01/the_european_tax_gap_en_190123.pdf

22. Sabando, P., Lamata, F. eta Torres, F., *Pasado, presente y desafíos de futuro del Sistema Nacional de Salud*, Díaz de Santos, 2020, Madril.

Raquel Martínez-Buján¹
Universidade da Coruña

Etxean eman beharreko zaintzaren hornikuntza, zahartzaroa mantentzera bideratutako zaintzarena bereziki, zalantzan jartzen ari da antolamendu sozial hegemonikoaren eredua; izan ere, laneko beharretan eta behar ekonomikoetan oinarrituta dagoen antolamendua denez, arazoak ditu bizitza sostengatzeko eskatzen duen denbora eta ordaindu gabeko lanaren hornikuntzaren arazoa ebazteko (Herrero, 2023). Estatistika Institutu Nazionalak egindako azken EDAD 2020 Inkestako datuek berresten dute familiako kideek modu eskusiboan zaintzen dutela mendekotasun-egoeran dauden pertsonen % 69,8, eta horietatik % 70,0 emakumeak direla zaintzaile nagusi, normalean emaztea edo alaba. Bizi-itxaropena luzatzea lortze sozial handia izan bada ere, ez da behar bezala txertatu gure eguneroko bizimoduan, luzatze horrek berekin dakartzan bizitza sostengatzeko oinarritzko beharrek ez dutelako irtenbide publikorik jaso.

Gaixotasun kronikoak dituzten edo bizitzaren azken etapetan dauden pertsona helduei eguneroko arreta ematera bideratutako zerbitzu sozialak arretako zerbitzuen hondarrak dira, eta, batez ere, muturreko arreta-beharrei erantzuten die denbora-tarte oso mugatuan (Comas eta Martínez-Buján, 2022). Adibidez, finantziario publikoaren ahalegin handiz azken hamarkadetan hedatu diren etxez etxeko laguntza-zerbitzuak ez dira gai egunean bi ordu baino luzaroago irauten duten zaintzak eskaintzeko. Hala ere, aurretik aipatu den iturriko datuen arabera, pertsona zaintzaileen % 51,8k zortzi urte baino gehiagoz dihardute lan horiek egiten, eta haietatik % 46,0k dio senideak egunean behar duen zaintza-denbora hamar ordu baino gehiagokoa dela. Giza zaurgarritasunaren etapetan biziraupenari eusteko sozialki inbertitu beharreko denbora-kantitatara hurbiltzen gaituzte zifra horiek.

Etxeko zerbitzu bihurtu da, beraz, pertsona nagusienak beren etxeetan izaten lagundu duen oinarritzko formula, eta, nolabait, horrek bermatu du lanaren banaketa sexuala oinarri duen genero-paktuaren iraunkortasuna.

Ez da harritzekoa, beraz, Espainian zahartzen joan ahala, klase altuko familiek lehendabizi, eta ertainekoek gero, emakumeek ordaindu gabe egindako lanari irtenbide pribatuak bilatu izana pertsona nagusiak etxean izaten jarraitzeko. Hori horrela, 1990eko hamarkadaz geroztik, Espainian ohiko bihurtu da etxe askotan zaintza-langile bat kontratatzea, belaunaldiak are eta urtetsuagoak bihurtu, emakumeak lan-merkatuan txertatu eta sostengatzaile bakarrek familiaren eredua apurtu bitartean eta gizonak bizitza sostengatzeko lanez arduratu gabe jarraitu bitartean. Etxeko zerbitzu bihurtu da, beraz, pertsona nagusienak beren etxeetan izaten lagundu duen oinarritzko formula, eta, nolabait, horrek bermatu du lanaren banaketa sexuala oinarri duen genero-paktuaren iraunkortasuna.

Etxeetan zaintza-langileak izateko eskaera hain handia izan da, ezen beste herrialde batzuetako langileak ekarri behar izan baitira lan hori hartzeko. Populazio Aktiboaren Inkestako datuen arabera, 2000. urtean 353.000 etxeko langile izatetik, 2010. urtean 662.000 izatera igaro ziren, eta lan horiek egiten zituzten emakume migratzaileen ehunekoa % 19,3tik % 68,9ra igo zen. Emakumeek jarraitzen dute zaintza eta laguntzaren familia-figurak izaten, baina, orain, lan horien zati bat etxeko langileei ematen zaie. Jada, etxeko eta zaintzako langile izendatu ohi dira langile horiek, hain

zuzen, azken hamarkadetan pertsona nagusien arreta-zerbitzuetan egiten duten lanagatik. Gaur egun, EDAD 2020 Inkestaren arabera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen % 28,3k ordainpeko zaintza-langile bat dute kontratatuta (Rodríguez eta Marbán, 2022). Horrenbestez, egunero laguntza behar duten hiru pertsonatatik batek norbait du kontratatuta. Are gehiago, kasu batzuetan langileak berak bihurtu dira zaintzaile nagusi eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan, etxe barneko langile erregimenean. Hala,

1. Soziologiako irakasle titularra.

beste senide batzuen presentzia ordezkatzeko dute, edo gertuko loturarik ez duten pertsonen arreta bete.

Gero eta handiagoa da figura horren protagonismoa, eta, normalean, etxeko zerbitzuari lotutako kanon informalekin bidez txertatu ohi dira etxeetan. Kongregazio katolikoak eta hirugarren sektoreko erakundeak bihurtu ziren langileak bildu eta hautatzeko prozesuez arduratzen ziren entitateak, historikoki sektore horietako bitartekari-prozesuetan izan duten funtzioa dela eta (Sarasúa, 1994). Alabaina, azken hamarkadan, aldaketak izan ditu zaintza-langileez hornitzeko irabazizkoa ez den prozesu honek. «Epe luzeko zaintza-eredua trantsizioan: ongizatearen sistema publikoan programa komunitarioak gauzatzea Covid-19 ondoren» —«El modelo de cuidados de larga duración en transición: la articulación de programas comunitarios en el sistema público de bienestar tras la Covid-19» (www.caremodelcom.es) (2021-2025 dagokiona, MICINnek finantzatua eta zeinean nik parte hartzen dudana)— izeneko esparru horretako azterketan erakusten denez, etxeetako zaintzaren merkantilizazio-prozesuaren etapa berri batean gaude (Martínez-Buján et al., 2024a). Etapa horretan, langileen eskaera handitu egin da, eta, aldi berean, aldatu egin dira haien kontsumo-ereduak.

Prozesu horretan, funtzio gero eta garrantzitsuagoa hartzen ari dira plataforma digitalak, zaintzaren komertzializazioan eskaintzen dituzten aukerak direla eta. Garapen teknologikoari esker, erraztu egin da lanaren malgutasuna, eta horrek ekarri du bezeroen «eskaeraren arabeko» nahiak kostu baxuan asebetetzera bereziki bideratutako lan-formula berriak sortzea. Prekariatetik etengabe pribatizatu diren zaintzak, orain, guztiz normalizatu dira eskuragarri egon behar den zerbitzu gisa, eta familiek, erabiltzaile gisa baino, bezero gisa eros dezaketen beste merkantzia bat bihurtu dira. Berrikuntza digitala eskaera horren zerbitzura jarri da, ez jarduera horri balio berria emateko, baizik eta eskuragarriago bihurtzeko (Näre eta Isaksen, 2022). Aldi berean eta duela gutxi gertatutako beste aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoek lagundu egin

dute plataforma digitalak hedatzen sektore horretan. Hauek izan daitezke aldaketa nagusienak, besteak beste: diru-transferentzietan oinarritutako iraupen luzeko programa publikoak hedatzea —etxeetan zaintzak emateko garaian enpresak egotea sustatu duena—, zerbitzu publikoen zurruntasun burokratikoak eta baliabide bat eskuratzeko dauden itxarotzerrendak, etxeko zerbitzuaren legerian egon diren aldaketak —lan-agentziak etxeetako zaintza-langileen enplegatzaile izateko aukera jasotzen dutena— eta Covid-19ren pandemiak sortutako osasun-egoera —zaharren egoitzekiko konfiantza falta sustatu zuena— (Martínez-Buján eta Moré, 2024b).

Horrenbestez, fenomeno berri eta globala da plataforma digitalen hedatzea, eta mendealdeko nahiz hegoaldeko herrialdeei eragiten die. Latinoamerikan, esaterako, etxeko lanaren sektorean hirurogeita hamar bitartekari digital baino gehiago aurkitu dira (Poblete et al., 2024). Indian, berriz, hilero % 60ko hazkuntza neurtu da jarduera horri zuzenduriko plataforma digitaletan (Kadokia, 2016). Espainian, gutxi gorabehera, azken bost urteetan nabaritu da etxeko zaintzen komertzializazioaren igoera. Gai horren inguruan egin diren txosten eta azterketa batzuek dagoeneko esparru horretan espezializatutako hamar plataforma baino gehiago identifikatu dituzte, eta horien sorrera 2015-2018 aldian finkatu da (Rodríguez-Modroño et al., 2022; Blanchard, 2021): Aiudo, Senniors, Cuideo,

Depencare, Cuidum, Wayalia, Vitalservit, Quida, Familiados eta Joyners dira horietako batzuk. Horri dagokionez, eta ekonomikoki izan duten hazkundera eta eragina zehazten duten estatistika ofizialik oraindik ez badago ere, aurretik aipatutako ikerketak enpresa horien gerenteei egindako elkarrizketa pertsonalak jaso ditu, baita enpresa horien orri digitaletako dokumentuak ere, eta haien hazkuntza nola azkartu den erakusten digute. Espainian esparru horretan hedakuntza handiena izan duen enpresetako bat da Cuideo, eta haren dokumentuetako informazioak berresten du 2022. urte amaieran 55.000 familia artatu zituela, 8.500 bezero berri zituela eta 2021arekiko % 69ko hazkundera izan zuela fakturazio gordinen. 2022.

urtean 55.000 langile baino gehiago kontratatu zituen (Casas, 2022). Gainera, Googlek 2021ean enpresa hori hautatu zuen «Google for Startups Accelerator» azelerazio-programan, eta nazioarteko punta-puntako 15 *startup*etakoa bat izan da. Aipatu azterketan berretsi egin da sektoreak izan duen hazkundera (Martínez-Buján eta Moré, 2024c): «Azken 4 urteetan 40 bider handitu dugu konpainia, eta azken urtean 3 edo 4 bider handitu dugu. 2.000 familia aktibo inguru ditugu, eta hazkuntza esponentziala izan da azken 3 urteetan batez ere. Hilero % 15 baino gehiago ari gara hazten» (*Zaintzak ematen dituen plataforma digitala, 2018an sortua*). Enpresa horietako gehienak *startup* gisa sortu dira. Azken hori ezaugarri garrantzitsua da, *startup*en helburua ez baita epe luzeko egonkortasun ekonomikoa, merkatuan posizio dominatzailea lortzea baizik, lehia gaintzeko asmoarekin (Ticona eta Mateescu, 2018).

Enpresa teknologiko horiek pertsona aitzindari eta sortzaileek, talentu eta asmamen handikoek, sortutako negozio-eredu berrien eredu gisa agertu ohi dira komunikabideetan, ordura arte errendimendu eskasa izan duten sektoreetan irabazi ekonomikoa sustatzeko merkaturako txokoak identifikatu dituztenak. Etxeko zaintzaren hornikuntza ezaugarri horiek betetzen dituen sektorea da. Gainera, laneko erregulazio gutxi duen jarduera bat da, eta, laneko baldintza eskasak direla-eta, irabaziak izateko aukera du. Orain arte, irabazirik gabeko ereduak zen nagusi bitartekaritza, eta hedatzen ari zen merkaturak, zaintzen zuzeneko hornikuntzari dagokionez, etxeko zerbitzuak eskuratzeko bide ohikoak informalak baitziren. Ekimen pribatua etxeko zerbitzuetatik kanpo geratu ohi zen, zaharren egoitzek, batez ere aurrekontu publikoekin finantzatutakoek, irabazi askoz handiagoa sortzen zutelako (Comas, 2015). Alabaina, garapen digitalarekin, esku-hartzea bideratu duten jardueren irabazi-kuota handitzea lortu da, algoritmoek langileak lanpostuetan egokitu, haiek hautatu eta kudeatzeko mekanismoak ezartzeko duten erraztasunari esker, eta azken horietan oinarritzen dira plataformen jarduerak.

Ekimen pribatua etxeko zerbitzuetatik kanpo geratu ohi zen, zaharren egoitzek, batez ere aurrekontu publikoekin finantzatutakoek, irabazi askoz handiagoa sortzen zutelako (Comas, 2015). Alabaina, garapen digitalarekin, esku-hartzea bideratu duten jardueren irabazi-kuota handitzea lortu da, algoritmoek langileak lanpostuetan egokitu, haiek hautatu eta kudeatzeko mekanismoak ezartzeko duten erraztasunari esker, eta azken horietan oinarritzen dira plataformen jarduerak

Espainian, bi zerbitzu-modalitatetara bideratuta dago plataforma digitalen funtzionamendua. Alde batetik, «etxeetan zaintzak ematearekin» erlazionatutako lanak egiten dituzte; hau da, plantillan (Erregimen Orokorrean) zuzenean kontratatutako langileek epe motzeko arreta-beharrak modu malgutan eta «eskaeraren arabera» eskaintzen dituzte. Bestetik, zaintza-langileen bitartekari eta hornitzaile gisa ere jarduten dute plataformek, eta familiek berek kontratatzen dituzte langileak, «Etxeko langileen erregimen bereziaren» bidez. Bigarren kasu horretan, plataformek bezeroen beharrak identifikatzen dituzte, langileak hautatzen dituzte eta administrazio-izapideak

egiten dituzte. Eguneko lanordu gehiago behar dituzten iraupen luzeko zerbitzuetarako erabili ohi da azken aukera hori. Bi kasuetan, 250 eta 370 euro bitarteko hasierako kuota kobratzen zaie familiei (plataformen bezeroei). Deskribatutako bigarren modalitatean (langilea familiek kontratatzen dutenean), 80 euro inguruko hileroko kuota ere ordaindu behar da. Familientzako kostua 17 eta 20 euro/ordu bitartekoa izaten da lehen aukeran (agentzia bidez kontratatutako langileak) eta 10 euro/ordu bigarren aukeran (familiek kontratatutako langileak). Bi kasuetan soldata bera izaten da, eta lanbidearteko gutxieneko soldata izan ohi da hori. 2023an 1.080 euro gordinetara zen hileko, urtean 14 ordainsaritan banatuta, asteen 40 orduko jardunaren truke. Horren arabera, lan egindako orduko tarifa 8,45 eurokoa izan zen. Familiek egindako kudeaketengatik ordaindutakoari eta langileen soldata baxuei esker lortzen dute irabazi ekonomikoa konpainia horiek.

Tamaina ertaineko hirietan ere, bitartekari gabe era tradizionalen kudeatutako etxeko zerbitzuak eskaintzen duena baino soldata txikiagoa da. Gure ikerketan jasotako informazio kualitatiboak adierazten duenez, etxeetako zaintzaile batek irabazirik gabeko bitartekaritza bidez kontratatzen denean, orduko duen prezioa 10 euro ingurukoa da, familiak langilearen Gizarte Segurantzak ordainduta ere.

Gure ikerketaren arabera, plataforma digitalek proposatzen duten negozio-eredua marketin-estrategietan eta liderrak zerbitzu sozial publikoetatik gertu dauden eremuetako gune erabakigarrietan kokatzean du oinarri. Haien talde gazteak konfiantza-marka gisa osatzen dira, eta komunikabideek sektorearen ezagutza zabala eta diskurtso profesionalizatzailea nabarmentzen dituzte (Otero, 2021), eta hiru dimentsiotan oinarrituta eraikitzen da. Lehen dimentsioa zaintzaren kalitatearen izaerari buruzko diskurtso oso teknikoari lotuta dago, behin eta berriro erabiliz gizarte-zerbitzuekin eta gizarte segurantzako programa publikoekin bat egiten duen terminologia. Hizkuntza politiko-teknokratikoa erabilita, enpresek helburu arrazional eta koherenteak hartzen dituzte beretzat, eta beren burua bide tradizionala baino eraginkorragoa den eredu bat sustatzeko oinarritzko eragileztat aurkezten dute. Bigarren dimentsioa teknologiaren bidez saltzen da, iPad eta antzeko gailuen erabilerarekin. Haien bidez egiten da segimendua eta kontrola, medikuari deitzen zaio eta/edo zaintzaren bilakaera behatzen da. Hirugarrenak haien ekintzak lan duina sortzearekin lotzen ditu. Liderrek sektoreko lanaren kalitatea hobetzeko ezinbestekotzat jotzen dute beren jarduera ekonomikoa, eta murgildutako ekonomia desagerrarazteko eta legearekin bat egiten duten soldatak bermatzeko gaitasuna duten entitate bakar gisa azaltzen dira gizartean.

Plataformek langileak legearen arabera kontratatzen badituzte ere, badaude sektorearen formalizazio horrek ere haren irregulartasunak bere horretan mantentzen dituela erakusten duten ebidentziak. Adibidez, atzeman denez, enpresa batzuek Gizarte Segurantzaren langile independente edo autonomo gisa kotizatzen duen esku-lana erabili izan dute, eta Espainiako legediak etxeetako zaintza-lanak erregimen horren barruan egitea debekatzen badu ere, plataforma batzuek formatu hori erabili dute bitartekaritza-prozesuan, enplegatzailea nor den definitzeko zailtasun juridikoa dagoelako

prozesuan, enplegatzailea nor den definitzeko zailtasun juridikoa dagoelako: langilea, familia edo enpresa. Are gehiago, Espainiako Auzitegi Gorenak kontratazio-jarduera horren kontrako erabakia hartu du bi aldiz, eta bi enpresek miloi askoko multak ordaindu behar izan dituzte (Lenzi, 2023). Gainera, ikusi da agentziek gaitasun mugatua dutela legezko lan-harreman jarraitua benetan gertatzen dela bermatzeko. Eskaintza eta eskaera lotu ondoren, kontratuaren etorkizunaren ardura enpresak beretzat hartzeari uzteko aukera dago, eta ez da bere ardura araudia *a posteriori* betetzen dela kontrolatzea. Espainian legez definituta dagoen «bitartekaritza-funtzioak» berak ez die uzten agentziei kontratazioaz haratagoko dinamikak sortzen, eta, beraz, bitartekaritza-prozesua amaitu egin behar da familia eta langilea elkartu ondoren.

Horrenbestez, eta plataforma digitalen bitartekaritzak legezko enplegua ziurtatzen badu ere, funtzionamenduari dagokionez, ohiko esplotazio-dinamikak gertatzen dira oraindik ere, batez ere etxe barruko langile gisa kontratatutako langileetan: gehiegizko lan-kargak, ordutegi oso luzeak eta atsedeen nahikorik ez. Enpresek euren negozio-eredua zaintzaren profesionalizazioaren bermatzaile izatearen ezaugarrian oinarritzen badute ere, errealtatean, bitartekari gisa eskaintzen dituzten lan gehienak etxe barruko langile jarduteko dira, trebakuntzarako bermerik eskaini gabe, eta enplegatzailearen eta langilearen artean negoziatzen diren lan-baldintzen inolako segimendurik egin gabe. Bestalde, enpresako langile gisa kontratatutako langileek, etxeko zerbitzua erregulatzen duen kanpoko lan-esparrua badute ere, ordukako lanaldiz eta lanaldi partzialez osatutako lanak egin behar izaten dituzte. Epe motzeko laguntza-zerbitzuak egiteak esan nahi du lan-ordutegi «ezohikoak» izatea (pazienteak jaikitzea eta oheratzea, bazkaltzen eta afaltzen ematea, gaua igarotzea ospitalean dauden bitartean eta abar). Gainera, ez dira

ordaintzen etxe batetik besterako joan-etorriak. Are gehiago, lanbidearteko gutxieneko soldataren arauari egokitutako soldatak direnez, baina lanaldi partzialekin edo ordukako lanaldiekin, azkenean jasotzen den soldata oso baxua da. Azken finean, plataforma digitalek lan prekarioa normalizatzen jarraitzen dute. Kontratu bidezko formalizazioa errazten badute ere, haiek merkatuan sartzeak laneko segurtasun eza sustatzen duten formulak ekarri ditu, eta horiek, aldi berean, langileengan zaurgarritasun-kondizio berriak sustatu ditu. Zaintzaren «uberizazioa» (Trojansky, 2020) edo zaintzaren «plataformizazioa» (Kluzik, 2022) gertatu da, hain zuzen. ■

Erreferentziak (testuan aipatu diren ordenaren arabera)

- Herrero, Y. (2023). *Toma de tierra*. Madril: Caniche Editorial.
- Comas, D. eta Martínez-Buján, R. (2022). «Hacia un modelo alternativo de cuidados». Comas, D. eta Bofill, S. (arg.). *Cuidar a mayores y dependientes en tiempo de la Covid-19. Lo que nos ha enseñado la pandemia*. Bartzelona: Tirant Lo Blanch, 423-450 orr.
- Rodríguez, G. eta Marbán, V. (koord.) (2022). *Informe de evaluación del Sistema de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia*. Madril: Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioa.
- Sarasúa, C. (1994). *Criados, nodrizas y amos. El servicio doméstico en la formación del mercado de trabajo madrileño, 1758-1868*. Madril: Siglo XXI.
- Martínez-Buján, R., Moré, P. eta Eijo, A. (2024a). «Agencias de intermediación, plataformas digitales y cooperativas de trabajadoras de cuidados: resistencia colectiva hacia la gestión privada del trabajo de cuidados en Barcelona». *Investigaciones Regionales* (bikote bidezko berrikuspenaren mende).
- Näre, L. eta Isaksen, L. W. (2022). *Care Loops and Mobilities in Nordic, Central, and Eastern European Welfare States*. Palgrave Macmillan Studies in Family and Intimate Life.
- Martínez-Buján, R. eta Moré, P. (2024b). «Home care for profit: intermediary agencies and digital platforms brokering migrant women's labour

Azken finean, plataforma digitalek lan prekarioa normalizatzen jarraitzen dute. Kontratu bidezko formalizazioa errazten badute ere, haiek merkatuan sartzeak laneko segurtasun eza sustatzen duten formulak ekarri ditu, eta horiek, aldi berean, langileengan zaurgarritasun-kondizio berriak sustatu ditu. Zaintzaren «uberizazioa» (Trojansky, 2020) edo zaintzaren «plataformizazioa» (Kluzik, 2022) gertatu da, hain zuzen.

- in Spain». *Current Sociology* (bikote bidezko berrikuspenaren mende).
- Poblete, L., Tizziani, A. eta Pereyra, F. (2024). «Plataformas digitales y formalización laboral. El trabajo doméstico en Argentina durante la pandemia». *Perfiles Latinoamericanos*, 32(63).
- Kadakia, P. (2016ko otsailaren 21a). «Bai on call: How home service apps are changing domestic help market». *Hindustan Times*.
- Rodríguez-Modroño, P., Agenjo-Calderón, A. eta López-Igual, P. (2022). «Platform work in the domestic and home care sector: new mechanisms of invisibility and exploitation of women migrant workers». *Gender & Development*, 30(3), 619-635.
- Blanchard, O. (2021). *Los cuidados a domicilio y las plataformas digitales en España*. Digital Future Society.
- Casas, S. (2022ko abenduaren 10a). «Cuideo cierra el año con 60 millones de facturación». *El Nacional*.
- Martínez-Buján, R. eta Moré, P. (2024c). «Transnational migration and brokering agencies in the home care sector in Spain». In Aulenbacher, B., et al. (arg.),

- Home Care for Sale. The Transnational Brokering of Senior Care in Europe*. Londres: Routledge.
- Ticona, J. eta Mateescu, A. (2018). «Trusted strangers: Carework platforms' cultural entrepreneurship in the on-demand economy». *New Media & Society*, 20(11): 4384-4404.
- Comas, D. (2015). «Los cuidados de larga duración y el cuarto pilar del sistema de bienestar». *Revista Antropología Social*, 24: 375-404.
- Otero, N. (2021eko apirilaren 20a). «Cuidadores a domicilio 24 horas». *El País*.
- Lenzi, O. (2023). «Plataformas digitales y empleo doméstico en España». *Lex Social*, 13(2), 1-26.
- Trojansky, A. (2020). *Towards the «Uberisation» of Care? Platform work in the sector of long-term home care and its implications for workers' rights*. European Economic and Social Committee.
- Kluzik, V. (2022). «Governing invisibility in the platform economy: excavating the logics of platform care». *Internet Policy Review*, 11(1), 1-21.

Verónica Rodríguez
ASUFIN

Kolektibo ugaria eta urte askokoa

Ez da sekretua askok zilarrezko ekonomia deiturikoan jarri dutela begirada. Kontzeptu hori *sylver economy* termino anglosaxoitik dator, eta *babyboom*aren belaunaldia deituriko 50 urtetik gorakoei eskaintzen zaizkien produktu eta zerbitzuen espektro zabala katalogatzea du helburu. Gure ikuspegitik, kontsumitzaile eta erabiltzaile finantzarioen elkarte garen aldetik, ezin dugu oharkabea pasatzen utzi kontsumoaren, kontratazio informatuaren, kontratazioan eta zerbitzuak ematean legezatasuna betetzearen eta, bete ezean, kontsumitzailearen eskubideak betetzearen ikuspegitik **hausnarketa ugari eta askotarikoak eragiten dituen joera**.

Kontuan har dezagun datu bat: Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) emandako datuen arabera, **epe laburrean erretiroa hartuko duten edo dagoeneko hartu duten bederatzi milioi pertsonetatik, % 89,2k, ia guztiek, jabetzan dute etxebizitza**. Erakargarritasun handiak eskaintzen dituen merkatua, inguruabar hori bakarrik kontuan hartuta, beste edozein aktibo mota alde batera utzi zuen belaunaldia eta bere bizi-zikloaren aurrezpena, neurri handi batean, jabetzako etxean gauzatu zen.

Pentsio-sistemaren konfigurazioa eta **demografia-piramideak jarraitzen duen logika, bizi-itxaropen handiarekin batera**, arazoa dira gure ekonomiarentzat. EINek jakitera eman dituen datu berrien arabera, 2002 eta 2022 bitartean, Espainiako gizonen jaiotza-uneke bizi-itxaropena 76,4tik 80,4ra igaro da, eta emakumeena 83,1etik 85,7ra.¹

Hainbat diziplinako adituek, hasi ekonomikotik eta soziologikoraino, eta beste arlo zehatzago batzuei dagozkien gaietatik igaroz, hala nola osasungintzatik, mendekotasunaren arretatik, farmakologiatik edo gizarte-ongizatatetik, hamarkadak daramatzate fenomeno hori aztertzen. Datozen hamarkadetan izango duen inpaktua **diru-sarrerak eskatzen dituen populazio handi batek** zehaztuko du. Urte horien ezaugarriak jarduera ekonomikorik eza eta prestazioen

gastu intentsiboa izango dira, eta horri gaixotasunaren, mendekotasunaren eta, oro har, asistentzia-premien azaleratze handiagoa gehitu behar zaio.

Beraz, artikuluko honen bidez, **kontsumitzaileen bizitzaren etapa honetan beharrezkoa den likidezia sortzera bideratutako produktu nagusietarako** hurbilketa bat eskaintzea da gure helburua, bai eta produktu bakoitzean kontuan hartu behar diren gaiak ere, kontsumitzailearentzako kokagunearen ikuspegitik, eta horietan zer eragozpen aurki ditzakegun.

Etxebizitza likidotzearen merkatua

Espainian **lehia txikia dago etxebizitza likidotzeko finantza-produktuen merkatuan** eta, horregatik, finantza-bitartekariek finkatzen dituzten prezioak altuak dira. Alderantzizko hipoteken interes-tasak % 6 ingurukoak dira, esaterako, **Erresuma Batuan gertatzen denaren aurrean**, han % 2 eta % 2,5 artekoak baitira. Oraindik hiri handietan, esaterako, Madrilén eta Bartzelonan eta, neurri txikiagoan, Bilbon eta Valentzian biltzen den merkatua da.

ASUFINen **hiru urte daramatzagu jarraian etxebizitza likidotzearen prezioen jarraipen puntuala egiten**, hain zuzen ere, alderantzizko hipotekarena, horien produktu adierazgarri gisa. Dagoen merkatua aztertzen dugu, urtero merkaturatzen diren edo bertan behera uzten diren operadoreekin, bai eta zer preziotan merkaturatzen duten ere.

Gure hipoteken azken barometroak IV. edizioa bete du. Une honetan alderantzizko hipotekaren interes-tasak zein mailatan mugitzen diren adierazten du eta, taulan ikus daitekeenez, % 7 ingurukoak dira dagoeneko, kasu gehienetan. **Ebn Banco eta Caser-en kasuan, % 6,69ko UTB aplikatzen da, eta Vitalitasen kasuan, % 7,44koa**, 70 urteko titularrarekin, 270.000 euroko etxebizitza batekin eta 22 urteko epearekin².

1. Kontuan hartutako EINen datuak, [esteka](#) honetan.

2. ASUFIN IV. Barometro hipotekarioa, 2024ko otsaila, eskuragarri [hemen](#).

	Zer jasotzen du		Zer ordaintzen du			
	Hileko errenta	Etxebizitzaren balioaren gaineko %	Eragindako zorra	Etxebizitzaren balioaren gaineko zorraren %	Kostua	UTB
Ebn Banco	Kapitala (*)	28,0 %	286.007 €	105,93 %	210.834 €	6,69 %
Caser	314 €	30,7 %	162.360 €	60,13 %	112.434 €	6,69 %
Óptima adinekoak	303 €	30,5 %	160.495 €	59,44 %	112.943 €	6,72 %
Vitalitas	297 €	29,0 %	168.537 €	62,42 %	121.314 €	7,44 %

(*) (*) 75.600 €-ko kapitala ematen da

Likidezia eta kontsiderazioak lortzeko finantza-formulak

Etxebizitza jabetzan izateko eta hortik erretiroaren osagarri diren errentak lortzeko, **hainbat finantza-formula daude**, eta modu tradizionalen ez bezala, hau da, etxea saltzea, **pertsona bakoitzaren egoeretara egokitu daitezke**, jarraian ikusiko dugun bezala.

Jabetza besterentzea (salmenta) berekin dakartenak daude, hala nola jabetza soila, alderantzizko etxebizitza edo higiezinaren errenta, eta bigarren multzo batean, jabetza mantentzea (eta, beraz, oinordekoei transferitzea) eta, aldi berean, errentak jasotzea ahalbidetzen duten aukerak daude. Litekeena da **ezkutuko merkatu horrek eztanda egitea**; izan ere, bizitza luzeko gizarteetan gertatzen den bezala, zenbat eta gehiago bizi, finantza-arazoak konplexuagoak izaten dira.

Erabaki oker edo egoki bat hartu izanaren eragina epe luzean agertzen da, eta **bizi-aurrezkiaren plangintza da hutsegite gehien egiten ditugun arloetako bat**. Gure pentsio-sistemaren jasagarritasunak jasaten duen tentsio-maila handia gehitu behar zaio horri.

Ezinbestekoa da produktu horietako baten aukeraketan aholkulari independente batek parte hartzea, oso garrantzitsua baita finantza-produktuaren euskarri izango den aktiboa, hau da, etxebizitza, behar bezala baloratzea. Gainera, **oso ondo azaldu behar da**, produktu konplikatuak direlako eta guztiak ez direlako bakoitzaren premietara egokitzen. ASUFINen, kontsumitzaileen finantza-hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu, erabiltzaile askok produktu horiei buruz egunero egiten dituzten kontsultei erantzuteaz gain.

Horrelako eragiketa bat egin nahi duen pertsona orok bere buruari galdetu behar dio ea bere ohiko etxean bizi nahi duen bere bizitza osoan, nola jaso nahi dituen sortu nahi dituen aparteko diru-sarrerak, aldizkako diru-sarrera gisa edo bat-batean egindako diru-sarrera gisa, edo etxea jabetzan eduki nahi duen.

Produktu horietako batzuk **ezezagunak dira gure herrialdean**, hala nola **higiezinaren errenta**. Frantzian oso hedatua dago viagers immobilier izenarekin eta bi alderen arteko kontratu batean datza. Kontratu horren bidez, alde batek jabetzan hartzen du etxebizitza beste aldeari biziarteko errenta bat ematearen truke.

Eta beste batzuk askoz ezagunagoak dira, hala nola **alderantzizko hipoteka** edo **jabetza soila**. Lehenengoak etxebizitzaren jabetza osoa eskualdatzea dakar eta, aldi berean, biziarteko alokairu-kontratu bat sinatzea. Eta bigarrenarekin jabetza transferitzen da, baina ez etxebizitzaren erabilera eta gozamina. Interesdunak bere etxebizitza saltzen du, baina hil arte bere esku izango du etxebizitzaren erabilera osoa, baita alokatu ere nahi badu.

Baina badira jabetza izaten jarraitzeko eta gero oinordekoei eskualdatzeko aukera ematen duten beste produktu batzuk ere, hala nola **alderantzizko etxebizitza** edo **alokairua trukatzeko**. Lehenengo kasua etxebizitzaren balioari lotutako mailegua da, eta berme gisa balio du. Interesdunak finantzaketa jasotzen du eta ez du itzuli behar hiltzen den arte. Hau da, oinordekoek itzuli beharko dute.


Alokairu-trukearen kasuan, **interesdunari zerbitzu jakin batengatik ordaintzeko balio duen akordio baten bidez bideratzen da**, etxebizitza beragatik kentzen den alokairuaren truke egindako egonaldi

gisa. Egonaldi horrek, adibidez, 1.000 euro ordaintzea eskatzen badu eta alokairuak 800 euroko etekina ematen badu, bitartekariak ordainduko du gainerakoa. Hildakoan, oinordekoek zorra itzul dezakete eta jabetza berreskuratu, alokairuaren ustiapena lagatzen jarraitu edo etxea saldu eta zorra kitatu.

Jabe askok etxearen jabetzarekin jarraitzeko duten nahari dagokionez, oinordetzan ematen diren etxebizitzaren % 90 inguru seme-alabek likidatzen dituzte salmentarekin eta ondorengo banaketarekin.

Alderantzizko hipoteka, produkturik orokortuena

Etxebizitza bat likidotzeko formula guztien artean, alderantzizko hipoteka da merkatuan eskaintzarik handiena aurkitzen duena. Egia esan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Notariotzaren Kontseilu Nagusitik ateratako datuekin, 2022an gorakada handia izan zuen hipoteka horien kontratazioak, 2011n lortutako maila gaindituz eta **sinatutako bostehun kontratu baino gehiagora iritsiz**.



Urtea	Alderantzizko hipotekak
2011	306
2012	126
2013	50
2014	29
2015	30
2016	23
2017	31
2018	45
2019	149
2020	111
2021	197
2022	549
2023	364

Alderantzizko hipoteken bilakaera, Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistikaren arabera

Alderantzizko hipoteken bilakaera, Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistikaren arabera

Alderantzizko hipoteka babesteko araubide espezifiko EHA/2899/2011 Aginduko I. eta II. kapituluetan arautzen da, eta kontratuaren aurreko informazio-fitxa (FIPRE) eta informazio pertsonalizatuaren fitxa (FIPER) barne hartzen ditu, Higiezinaren kreditu-kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legeko aplikazio-eremutik kanpo geratzen dela kontuan hartuta³.

Gaur egun, gure hipoteka-barometrotik ateratako datuen arabera, gutxi dira merkatuan produktu hori duten erakundeak: Optimo Mayores, Gestió Vitalici Vivenda, Cáser eta Grupo Retiro aseguru-etxeek, Caja Ingenieros moduko txikizkako bankuek, eta Banco Santanderrek eta Mapfrek % 50eko partaidetza duen sozietate bat eratzea erabaki dute alderantzizko hipotekak merkaturatzeko.

Izan ere, arrisku gutxiko produktuak izan arren, **beldur dira oinordekoek ez ote duten zorra kitatuko** edo ez ote dioten herentziari uko egingo, eta erakunde hori bera izango ote den etxebizitza jabetzan hartu beharko duena.

3. «Alderantzizko hipoteka: irudiaren azterketa eta gida praktikoa» izeneko gure azterlanean xehetasun handiagoz azalduta, ASUFIN, 2022, eskuragarri [hemen](#).

Kostu bidezko produktua

Alderantzizko hipotekaren akats nagusietako bat, gure barometroetan behin eta berriz adierazi duguna, sortzen diren errentak oso baxuak direla da. Orrialde hauetan bertan aipatu dugun eta grafikoa erreproduzitu zaion V. Barometroko datuen arabera, **bezeroak 300 euro inguruko errenta baino ez du jasotzen**, eta kopuru hori oso txikia da etxebizitzaren balioa kontuan hartzen badugu.

Zorra itzultzeko unean emandako dirua berreskuratzea (oinordekoek ordainduz edo higiezinaz salduz) bermatzea xede duen produktu baten aurrean gaudela gehitu behar zaio horri. Batez besteko bizi-itzaropena kontuan hartzen badugu (83,3 urte Espainian), 13,3 urte horietan **onuradunak etxebizitzaren balioaren % 30 jasoko luke gehienez**, eta hori kasurik onenean.

Gehiago biziko balitz, ehunekoa handiagoa izango litzateke, baina oso txikia izango litzateke ondasuna berreskuratzea bermatuta izateko. Biziraupen oso luzeko kasuetan, etxebizitzaren % 30-35 arteko ehunekoa ematea lor dezake, eta etxebizitzaren balioaren % 60 inguruko zorrak sor ditzake.

Oinordekoak, huskeria ez den kontua

Alderantzizko hipoteka eratzeko orduan, ez da legezko betekizuna berme gisa eskainitako etxebizitzaren titularrek oinordekoen baimena izatea. Hala ere, banku batzuek eskatu egiten dute eskritura sinatzeko, ez delako huskeria. Alderantzizko hipoteka duten etxebizitza gehienek oinordekoen eskuetan amaitzen dute; izan ere, merkatuko erakunde eta operadoreek planteatzen duten simulazioa nahiko **kontserbatzailea izan ohi da, onuradunek ez dezaten inoiz errenta agortu**, beti gera dadin erabili gabeko aldiaren gerakina.

Beraz, heriotzaren unean 6 eta 12 hilabete arteko epea irekitzen da. Epe horretan, oinordekoek aukera hauetako bat hautatu behar dute:⁴

1. Higiezinaren jabetzarekin jarraitzea, mailegua ezereztuz. Horretarako, zorra likidatu beharko dute,

4. "Alderantzizko hipoteka: irudiaren azterketa eta gida praktikoa», ASUFIN, 2022, eskuragarri [hemen](#).

2. Jabetza gorde nahi badute, baina ordainketari ezin badiote aurre egin, banketxeari hipoteka bat eskatu alderantzizko hipotekaren bidez sortutako maileguagatik.
3. Higiezinaz saltzea, jabetza galduz, eta zorra itzultzea, soberako kopuruarekin geratuz. Lortutako zenbatekoa nahikoa ez bada, erakundeak gainerako zenbatekoa erreklamatu ahal izango die jaraunspeneko ondasunetara iritsi arte.
4. Jaraunspenari uko egitea. Mugaeguneratutako zorra eta dagozkion interesak kitatu ez dituztenez, higiezinaren jabetza galduko dute, eta erakunde emaileak hipoteka-bermea betearaziko du, jarauntsiko ondasunetara iritsi arte kobratu ahal izango duelarik.

Alderantzizko hipoteka: alderantzizkoa bai, hipoteka ez

Azkenik, produktu horien eragozpen handienetako bat **nahasmenerako arriskua da**. Horregatik, behin eta berriz diogu kontsumitzaileari kontratazioan helarazitako informazioa guztiz ezinbestekoa dela.

Jasotzen den errenta ez da etxebizitza osoa, hipoteka konbentzionala ez bezala; izan ere, hipoteka horrek merkatura ahalik eta gehien egokitzen den balorazioa (tasazioa) behar du. **Beti txikiagoa da, eta ezin da inoiz eguneratu.**

Bestalde, **produktu horren interes-tasa oso handia da**, ohiko hipoteketan dugunarekin alderatuta. Duela hiru urtetik hona produktu horien prezioen jarraipena egiten ari gara, eta % 7,04ko UTBa dugu 2021ean Vitalitasek merkaturatzen zuen produktuaren kasuan; ⁵ orduan, Euriborrak maila negatiboa zuen eta % 1eko hipoteka erreferentziatuak aurki zitezkeen, % 1,5eko UTBa gainditzen ez zutenak.

Hala eta guztiz ere, finantza-erakundeak eta merkatuko operadoreak **oso zuhurrak dira produktu horiek merkaturatzeko eta emateko orduan**. Ez daude izan ditzaketan arazoetatik kanpo eta, iraganean, epaitegietan jasan dituzte⁶ planteamendu okerren

5. ASUFIN II. Barometro hipotekarioa, 2021eko ekaina, eskuragarri [hemen](#).

6. <https://www.asufin.com/hipoteca-inversa-fraude-jubilados-firmado-bbva-parte-1/>

ondorioak, bai eta izen ona galtzea ere. Horregatik, ohiko hipotekaren kasuan ez bezala, oso modu mugatuan jartzen dira merkatuan eta merkatu-balio handia duten edo berme-eremu jakin batzuetan dauden higiezinak baino ez dituzte onartzen.

Hala eta guztiz ere, etorkizun ez oso urrunean produktuak eskatuko dituen goranzko joerari eutsi diogu. Gure bazkideei egindako inkesta batean, % 83 inguruk onartu zuen bere pentsioa osatu beharko duela unea iristen denean, eta % 73k ez luke nahiko bere egungo etxebizitza uztea. Gainera, % 69ri

jabetza mantentzea gustatuko litzaioke, seme-alabek oinordetzan har dezaten.

Jabetza eta diru-sarreraren premia. Dualtasun horrek finantza-merkatua erakartzen du eta, bereziki, hipoteka-merkatua. Zilarrezko ekonomiaren premiak asetzen dituzten produktuen diseinuan, kontsumitzaileen eskubideak betetzearen inguruko gai delikatuak dago jokoan. Eta erronka horretan, denok egin beharko dugu topo: kontsumitzaileen elkarteek, merkatuko agenteek eta agintari zaintzaileek. ■

José Ramón Landaluce*Nagusia (Bizkaiko Adinekoen Elkarte)***José Ignacio Casas***Soziologoa***1. Aitzinsolasa**

Adinekoen garrantzia eta presentzia soziala marjinalizat edo gizartearentzat garestitza hartu izan da. Produktuen eta zerbitzuen merkatutik begiratuta, adinekoak ez dira kontuan hartzen edo adinkeriazko klixeeekin tratatzen dira.

Azkenaldian, baina, produktuen eta zerbitzuen gero eta eskaintza handiagoa dago adinekoentzat, arlo publikoan nahiz pribatuan: Zilarrezko Ekonomia deritzo.

Ikuspegi horren arabera, adinekoak jada ez dira pentsio, osasun-arreta eta zahartzaro gero eta garestiagoen hartzaile hutsak. Zilarrezko ekonomiak «gainditu» egiten du hori, adinekoak ere produktuen eta zerbitzuen kontsumitzaile izan daitezkeen heinean, eta, beraz, produktu eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresei irabaziak sortzen dizkieten heinean.

Zenbait kasutan, eskaintza hori lehendik dauden produktuen eta zerbitzuen luzapen bat besterik ez da, eta adinekoen populazioari edo haren azpisegmentu bati bideratutako «estalki» bat da. Beste zenbaitetan, «ad hoc» eskaintzen da.

Gehienetan, baina, adinekoen kolektibo zehatzei bideratutako eskaintza da, dauzkaten ezaugarriak, profil sozio-ekonomikoa, etxeko egoera edo gastatzeko

Adinekoak, finantza-erakundeen balizko bezero moduan, oso segmentu sentikorra eta zaila dira erabaki finantzarioak hartzeko orduan. Bi arrazoi daude: adin handikoek gutxiago ezagutzen dituzte finantza-merkatuak eta tresnak, konfiantza gutxi dute, baliteke eskaintakoa ez interesatzea eta, gainera, adinarekin gaitasun kognitiboak galdu ahala, zentzuzkoak ez diren erabakiak har litzakete. Tamalez, ezagutu ditugu horrelakoak, hala nola «lehentasunezko akzioak», adinekoen gaitasun analitiko okerragoaz baliatu eta erakundearentzat errentagarriak diren produktuak hartzera bultzatuz.

ahalmena direla eta. Eskaintza ez da, beraz, adineko guztientzat, baizik eta gehiago kontsumitu dezaketenentzat, adineko gehienak ahaztuz.

Baliteke eragile ekonomiko askok adinekoentzako produktuak ekoitzi eta banatu nahi ez izatea, haiei zerbitzuak ematea negozioarako ona ez delakoan. Fabrikatzaile batzuek merkatu hori «bigarren mailakotzat» hartzeko arriskua dago. Horrek esan nahi du arlo askotan kontsumitzaile dirudunengan jarriko dela arreta, haientzat baitira luxuzko artikuluak (eta zerbitzuak).

Adinekoak, finantza-erakundeen balizko bezero moduan, oso segmentu sentikorra eta zaila dira erabaki finantzarioak hartzeko orduan. Bi arrazoi daude: adin handikoek gutxiago ezagutzen dituzte finantza-merkatuak eta tresnak, konfiantza gutxi dute, baliteke eskaintakoa ez interesatzea eta, gainera, adinarekin gaitasun kognitiboak galdu ahala, zentzuzkoak ez diren erabakiak har litzakete. Tamalez, ezagutu ditugu horrelakoak, hala nola «lehentasunezko akzioak», adinekoen gaitasun analitiko okerragoaz baliatu eta erakundearentzat errentagarriak diren produktuak hartzera bultzatuz.

Instituzioen mailan, Zilarrezko ekonomia sustatzeko ekimenak egon dira, adibidez SILVER SMEs¹ (Europar

1. <https://projects2014-2020.interregeurope.eu/silversmes/>

Batasunak finantzatu), Zilarrezko ekonomiaren Lehen Kongresua² (Mérida, 2021ko irailak 22-23), Silver Economy Nazioarteko V. Kongresua³ (Zamora, 2023ko azaroak 23-25) edo Nagusi Intelligence Center⁴ (Bizkaiko Foru Aldundia), azkenaldiko batzuk aipatzearren. Denak ala denak enpresa pribatua sustatzeko ekimen publikoak dira, eta adinekoen edo haiek ordezkatzeko dituzten elkarten ikuspuntua hutsaren hurrengoa izan da.

Adinekoen iritzirik ezak adinkeria bultza dezake, bai eta negozioari bakarrik erreparatzea, ustez ekimen horien hartzaile direnen premiak kontuan hartu gabe edo haiek diskriminatuz.

2. Sektore nagusiak

Zilarrezko ekonomiaren arloko ekimenak bat datoz, hein batean, adinekoek aipatutako interesekin. Edo kointzidentzia partziala dago, edo desegoki asetzen dituzte premiak, edo ez dituzte batere aintzat hartzen. Honako hauek dira, exhaustiboak izateko asmorik gabe, interes-arlo nagusiak.

2.1. Osasuna eta zahartze aktiboa

Adinekoek osasun-zerbitzu hurbilak, atseginak eta eraginkorrak nahi dituzte, eta ez konponbide partzialen promesak, pertsonak subjektu pasibo bihurtzen dituztenak, gero eta mendekoago.

«Zahartze aktibo» delakoaren esparruan, nahitaez merkantilizatuak egon behar ez duten jarduerak nahi dira, osasunarentzako eta ongizaterako onurak egiatzaturik eta monitorizaturik dituztenak.

Osasun-zerbitzu pribatuen arloan, adinagatik, osasun-egoeragatik edo ingurune pertsonalagatik diskriminatu izan den kasuak egon dira.

Adinekoek asko erasaten die marjinazioak edo, onenean, gizartean edo ingurune komunitarioetan parte hartu ezinak. Zilarrezko Ekonomiak ez dio erantzunik eman hain larria den nahi gabeko bakardadeari. Gehienez ere, benetako harreman sozialen ordezkako eskaintzen dira, baina ez dira oinarritzen pertsonen arteko komunikazioan eta adinekoen intereseko gaiei buruzko erabakietan parte hartzean.

2.2. Parte-hartzea eta harreman sozialak

Adinekoek asko erasaten die marjinazioak edo, onenean, gizartean edo ingurune komunitarioetan parte hartu ezinak. Zilarrezko Ekonomiak ez dio erantzunik eman hain larria den nahi gabeko bakardadeari. Gehienez ere, benetako harreman sozialen ordezkako eskaintzen dira, baina ez dira oinarritzen pertsonen arteko komunikazioan eta adinekoen intereseko gaiei buruzko erabakietan parte hartzean.

«Imitazioak» eskaintzen dira, mundu «arrosa» bat erakusten duten web-orriak, adinekoen funtsezko problemak ezkutatuz. Web-orri horiek, gainera, adinekoen bizkar diseinaturiko produktuen eta zerbitzuen publizitatea egiten dute.

2.3. Informazio- eta komunikazio-teknologia berrietara iristea

Sarritan, informazio-teknologia berriak oztupo bat dira, adinekoak eta adineko ez direnak marjinatzen dituen oztupo bat, eta ez gizartean txertatzeko kanal bat. Produktu fisikoen (smartphoneak, tabletak, etab.) eta softwarearen diseinuak ez ditu kontuan hartzen erabiltzaileen premiak. Urteen poderioz bakarrik ikasten den teknologia horren ezagutzarik ezaz abusatzea ere gertatzen da.

Aparatuen eskuliburuak eta jarraibideak, bai eta web-orrien diseinua ere, batik bat erakunde publikoenak, adinekoek bizkarra emanda sortu dira, haiek erabili ahal izateko jakintzak eta baliabideak dauden aintzat hartu gabe.

2.4. Kultura eta aisia

«Silver turismo» delakoak gora egin du azken urteotan, besteak beste Imersoreen eta beste organismo publiko eta pribatu batzuen bidaia-eskaintzen bidez. Baina zerbitzu kaskarren edo adinekoenganako tratatu txarren kasuak ere egon dira eta hedabideetan agertu dira.

Aisia eta kultura diseinatzeko orduan ez da beti kontuan hartzen adinekoen sentsibilitatea, eta ez dute parte hartzen helmugak, bideak, ostatuak, jarduerak edo

2. <https://www.economiaplateada.org/>

3. <https://emprendezamora.eu/congreso-silver-economy/es>

4. <https://www.bizkaia.eus/eu/web/nic>

Herritarrek oro har eta adinekoek batik bat finantzez dakitena gure inguruko beste herrialde batzuetan baino askoz gutxiago da, eta, noski, ez da nahikoa. Baina ezjakintasun horretaz baliatzen diren gero eta finantza-produktu gehiago agertu dira, adinekoen egoeraz eta haien behar ekonomikoez abusatu nahian. Informazioa osatu gabea izaten da, nahasgarria eta berez ez denaren itxura ematen zaio. Inoiz ez dira lehenesten adinekoen benetako premiak, finantza-erakundearen mesedetan. Klausula diskriminatzaileak edo baztertzailak ere aurkitu dira aseguru, hipoteka eta abarretan.

premia bereziak dituzten pertsonentzako zerbitzuak erabakitzen.

2.5. Ekonomia eta finantzak

Herritarrek oro har eta adinekoek batik bat finantzez dakitena gure inguruko beste herrialde batzuetan baino askoz gutxiago da, eta, noski, ez da nahikoa. Baina ezjakintasun horretaz baliatzen diren gero eta finantza-produktu gehiago agertu dira, adinekoen egoeraz eta haien behar ekonomikoez abusatu nahian.

Informazioa osatu gabea izaten da, nahasgarria eta berez ez denaren itxura ematen zaio. Inoiz ez dira

lehenesten adinekoen benetako premiak, finantza-erakundearen mesedetan. Klausula diskriminatzaileak edo baztertzailak ere aurkitu dira aseguru, hipoteka eta abarretan.

3. Jokabide-kode baten zergatia

Ustez adinekoei bideratutako eskaintzaren barruan, hainbat oker agertu dira:

- Produktuen eta zerbitzuen diseinua.
- Eskaintzaren benetako hartzaileak.
- Baldintza diskriminatzaileak.
- Adineko askoren kultura finantzario urriaz abusatzea.
- Adinekoei buruzko irudi murrizta eta adinkeriazkoa.
- Produktu eta zerbitzu anbiguoak, adinekoen autonomia ez baizik mendekotasuna indartzen dutenak.
- Adinekoekin lotutako erakundeak eta web-orriak erabiltzea marketinerako eta segmentu horretara heltzeko.
- Zenbait baldintza eta planteamendu egonez gero, baina, produktu eta zerbitzu asko onuragarriak izan daitezke. Horretarako, puntu hauek proposatzen dira:
- Eskaintako produktuak eta zerbitzuak kalitatezkoak diren eta adinekoen azpisegmentuen premiekin bat datozen aztertzea eta ebaluatzea, asetako nahiz ase gabeko premiak identifikatzea, bai eta eskaintzaren egokitasuna ere.
- Adinekoei eta Zilarrezko ekonomiari buruzko diskurtsoen analisi kritikoa.
- Adinekoen eta haien elkartearen ikuspuntua aintzat hartzea, honako hauetan parte har dezaten:
 - lehentasunak ezartzen,
 - produktuak eta zerbitzuak diseinatzen eta
 - produktu eta zerbitzu horiek ezartzeko probetan, bai eta horiek garatzeko eta hobetzeko informazioetan ere.
- **Jokabide Kode bat egitea** enpresa eskaintzaileentzat, Hirugarren Sektoreko enpresentzat nahiz Botere Publikoentzat, kalitatea kontrolatzeko eta eskaintako zerbitzua edo produktua bat etor dadin «saldutako» publizitatearekin.

4. Jokabide Kodearen ardatzak

Jokabide Kodea edo Jardunbide Egokien Kodea arau eta planteamendu multzo bat da, ingurune ekonomiko eta sozial bateko erakundeek bete asmo duena.

Ez da debeku sorta bat. Erakunde horien ikuspuntuak edo ekintzak zehaztera bideratutako oinarri zabalak dira.

Kode baten amaierako azterketa guztiek aipatu behar dute zenbateraino eragiten dion jokabideari.

4.1. Erakunde guztientzako oinarri berdinak

- Produktuen eta zerbitzuen helburuek, ekintza-planek, diseinuak eta inplementazioak argi adierazi behar dute zer publiko den beren xedea, eta zer elementu hartu dituzten kontuan biztanleriaren azpisektore batzuk hartzeko eta besteak baztertzeko.
- Produktu edo zerbitzu bakoitzaren proiektuan adinekoek hasieratik parte hartu dutela egiaztatzeko bideak jarri behar dira, osasunarentzat dituen onurak erakutsiz, kalera irteten laguntzen duela eta abar.
- Proposatutako ideia baldintzen arabera garatzen ari dela egiaztatzea, eta, azkenik, produktua balioztatzeko probetan parte hartzea. Hura kontsumitzeak edo erabiltzeak adinekoentzat izango lukeen onura ere balioztatu liteke.
- Ideiaren testuinguru eta ondorio guztiak aurkeztea. Proiektuan parte hartzen duten adinekoek argi ulertu behar dute helburua, funtzionalitateaz eta amaierako kostuaz iritzia eman ahal izateko. Produktu batzuk zerbitzu publikorako izango dira, beste batzuk ustiapen pribaturako eta besteak hainbat maila ekonomikorentzat izango dira.

4.2. Administrazio Publikoei dagokionez

- Administrazio Publikoen ahaleginak, jardunak eta finantzaketak arretaz bilatu behar du adinekoen ongizatea eta parte-hartze soziala, eskaintzaren irabazietatik haratago.
- Administrazio Publikoek bermatu egin behar dute adinekoek eta haien elkarteek parte hartzen dutela bai epe ertain eta luzeko helburuak ezartzen

Administrazio Publikoen ahaleginak, jardunak eta finantzaketak arretaz bilatu behar du adinekoen ongizatea eta parte-hartze soziala, eskaintzaren irabazietatik haratago. Administrazio Publikoek bermatu egin behar dute adinekoek eta haien elkarteek parte hartzen dutela bai epe ertain eta luzeko helburuak ezartzen bai ekintzak diseinatzen, beren iritzia eta proposamenak entzuten direla ziurtatuz.

bai ekintzak diseinatzen, beren iritzia eta proposamenak entzuten direla ziurtatuz.

4.3. Enpresa pribatuei dagokionez

Enpresa interesatuek Zilarrezko ekonomiaren arloan eskaintako produktuek eta zerbitzuek norabide hori bera eduki behar lukete; hain zuzen ere:

- Datuen pribatutasuna eta babesa: aitopen argia eta xumea erabiltzaileen eta bezeroen datuei emango zaien erabileraz, betiere arauak betez.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa: Finantza Tresnen Merkatuei buruzko Europako Zuzentaraua eta gainerako arauak egoki aplikatzea, batez ere jakintza eta/edo informazioa eskuratzeko aukera gutxiago duten adinekoei begira.
- Erabiltzailea edo kontsumitzailea babesteko politika publikoak eta baliabideak zehaztea.

4.4. Adinekoei zuzendutako irabazi asmorik gabeko erakundeei, hedabideei edo antzekoei dagokionez

Enpresa eskaintzaileen eta Hirugarren Sektoreko erakundeen gardentasuna: eskainitako produktuekiko eta zerbitzuekiko jabetza- eta/edo merkataritza-harremanak adierazi behar dituzte (jabetza- eta merkataritza-katearen trazabilitatea).

Adinekoen elkarteen eta erakundeen gardentasuna: merkataritzako ekintza bakoitzean jaso ditzaketen zuzeneko edo zeharkako irabazi guztiak aitortu behar dituzte.

Jokabide Kode hau sustatu behar litzateke sektoreko beste erakundeetan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteetan eta Europar Batasunaren mailan. ■

GOMENDATUTAKO LIBURUA

DANNEFER, DALE, *AGE AND THE REACH OF SOCIOLOGICAL IMAGINATION. POWER, IDEOLOGY AND THE LIFE COURSE*, ROUTLEDGE, AGING AND SOCIETY SERIES, NEW YORK, 2022

José Ignacio Casas
Soziologoa

Zilar ekonomia ikuspuntu kritiko batetik aztertzen duen erreferentziazko libururik ezean, honako haxe hautatu da gerontologia sozial kritikoari buruzko literatura berriaren adibidetzat. Goazen atalka.

Gerontologia deritzo zahartzea bi esparrutan ikertzeari. Gizabanakoaren mailan, jaiotzatik heriotzara arteko ibilbide moduan, bere dimentsio biologikoa, psikologikoa, soziala, espirituala, kulturala, ekonomikoa, etab... Populazioaren mailan, adin-talde desberdinak ikertzen ditu profil soziodemografiko, epidemiologiko, sanitario eta politika publikoen arabera. Gerontologia, beraz, biologikoan eta mediko-sanitarioan ardaztutako geriatría baino urrunago doa.

Iragan mendeko erdialdetik aurrera, gerontologia sozialak aurrerapauso bat eman zuen, diziplinarteko azterketa batera ireki zen eta biztanleria osora zabaldu zuen ikerketa-eremua, eta ez adinekoengana bakarrik. 90eko urteetan mugarri izan zen *American Sociological Association* delakoaren barruko *Zahartzearen Soziologiari buruzko Atalak* izen berria hartzea: *Zahartzearen Soziologiari eta Bizitza-Ibilbideari buruzko Atala*¹.

Ordutik hona, kontzeptu-ereduen hainbat proposamen egon dira, haietatik abiatuta gerontologia sozialaren



teoria integratu bat eraikitzeko. Adibidez, Bass (2009) edo Ferraro (2018).

Hemen aipatutako liburuak ale bakar batean sintetizatzen du gerontologia sozialaren egoera, paradigma berritik abiatuta ikerketa-eremua laburtuz eta Ch. W. Mills-ek proposatu zuen irudimen soziologikotik abiatuta (2021[1959]).

Dannefer-ek bizitza-ibilbidea kokatzen du zahartzearen eta zahartzaroaren erdigunean, eta ikuspegi teoriko berri batean integratzen ditu esparru soziala, biologikoa eta hermeneutikoa. Bizitza-ibilbidean zehar pilatzen dira abantailak eta desabantailak, eta horietan oinarritzen dira gero eta desberdintasun handiagoak, baita biztanleria-multzo bakoitzaren barruan ere.

1. Eremu horretako ekoizpen bibliografikoa etengabe hazi dela erakusten dute hainbat serie editorialek, hala nola «Aging and Society Series» (Routledge), «Healthy Ageing and Longevity» (Springer) edo «Ageing in a Global Context» (Policy Press), bai eta aldizkari akademikoek ere, hala nola *Advances in Life Course Research, Ageing & Society, European Journal of Ageing, Exlibris Social Gerontology Journal, Gérontologie et société, International Journal of Aging and Human Development, Journal of Aging and Social Policy, Journal of Cross-Cultural Gerontology, Journals of Gerontology - SOCIAL SCIENCES, Longitudinal and Life Course Studies, Psychology and Aging, Research on Ageing and Social Policy (RASP), The Gerontologist, The Journal of Aging and Social Change*, besteak beste.

Egilearen beraren aitzinsolasari jarraituz, liburuak hiru eremu edo muga nagusitan jorratzen ditu ikerketa-lanak: 1) muga sozioestukturala, 2) muga biosoziala eta 3) muga gogoetatsu kritikoa. Muga sozioestukturalak indar makro-, meso- eta mikro-estrukturalek zahartzea antolatzen duten zerikusia lantzen du (4. ataletik 6.era). Muga biosozialak gorputz fisikoarekin lotzen ditu dinamika sozioestuktural horiek: nola garatzen da bizia? Bizitza-ibilbideko esperientziek elkarri eragin eta inpakturik ba al dute zahartzen diren pertsonen gorputz fisikoetan? (7. atala eta baita 2.a eta 3.a ere). Muga gogoetatsu kritikoak (8. ataletik 10.era) adina ikertzen du zientziaren esanahia sortzeko prozesuen emaitza gisa, eta eremu horretako indar politiko, ekonomiko eta kulturekin duen harremanaren arabera. Indar sozial zabalago horiek ikerketa mugatzen dute, irudimen soziologikoa are gehiago murriztuz.

Laburtuz, abiapuntu bikaina da gure herrialdea sakon ikertzen hastetik urrun dagoen esparru batean.

Erreferentziak

- Bass, S.A. (2009), *Toward an Integrative Theory of Social Gerontology*, hemen: Bengtson, V.L. et al. (editoreak), *Handbook of Theories of Aging* (Nueva York, Springer, 2. ed.), 347-374. or.
- Ferraro, K.F. (2018), *The Gerontological Imagination: An Integrative Paradigm of Aging* (New York, Oxford University Press).
- Mills, Ch.W. (2021)[1959], *La imaginación sociológica* (Mexiko, Fondo de Cultura Económica).

Antonucci, Toni C., eta Jackson, James S. (editoreak) (2009), Life-Course Perspectives on Late-Life Health Inequalities (Annual Review of Gerontology and Geriatrics, 29. alea).

Baars, Jan (2024), Long Lives Are for the Rich. Aging, the Life Course, and Social Justice (New York, Routledge, Aging and Society Series).

Baars, Jan, Dannefer, Dale, Phillipson, Chris, eta Walker, Alan (editoreak) (2006), Aging, Globalization and Inequality. The New Critical Gerontology (Amitville NY, Baywood Publishing Company).

Crystal, Stephen, eta Shea, Dennis (editoreak) (2002), Economic Outcomes in Later Life: Public Policy, Health, and Cumulative Advantage (Annual Review of Gerontology and Geriatrics, 22. alea).

Dannefer, Dale (2021), Age and the Reach of Sociological Imagination. Power, Ideology and the Life Course (New York, Routledge, Aging and Society Series).

Dannefer, Dale, eta Phillipson, Chris (editoreak) (2010), The SAGE Handbook of Social Gerontology (Los Angeles, Sage).

Domingo, Andreu (editorea) (2018), Demografía y posverdad. Estereotipos, distorsiones y falsedades sobre la evolución de la población (Bartzelona, Icaria).

Domingo, Andreu (editorea) (2023), La coartada demográfica y el discurso de la involución en España (Bartzelona, Icaria).

Dubert, Isidro, eta Pérez-Caramés, Antía (koordinatzaileak) (2021), Invasión migratoria y envejecimiento demográfico. Dos mitos contemporáneos (Madril, Catarata).

Durán, M. Ángeles (2018), La riqueza invisible del cuidado (Valentzia, Universitat de València).

Formosa, Marvin, eta Higgs, Paul (editoreak) (2015), Social Class in Later Life. Power, identity and lifestyle (Bristol, Policy Press).

Meyer, Madonna Harrington, eta Daniele, Elizabeth A. (editoreak) (2016), Gerontology. Changes, Challenges, and Solutions. 1. alea: Social and Life Course Issues (Santa Barbara, Praeger).

Meyer, Madonna Harrington, eta Daniele, Elizabeth A. (editoreak) (2016), Gerontology. Changes, Challenges, and Solutions. 2. alea: Health and Wellbeing (Santa Barbara, Praeger).

Moody, Harry R., eta Sasser, Jennifer R. (2021), Aging. Concepts and Controversies (Los Angeles, Sage, 10. edizioa).

Neugarten, Dail A. (editorea) (1996), The Meanings of Age. Selected Papers of Bernice L. Neugarten (Chicago, The University of Chicago Press).

Quadagno, Jill S. (2022), Aging and the Life Course. An Introduction to Social Gerontology (New York, McGraw-Hill, 8. edizioa).

SHARE, the Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe. A research infrastructure for studying the effects of health, social, economic and environmental policies over the life-course of European citizens and beyond. <https://share-eric.eu/>

Wellin, Chris (editorea) (2018), Critical Gerontology Comes of Age. Advances in Research and Theory for a New Century (New York, Routledge).

Worthington, H., Simmonds, P., eta Farla, K., et al. (2018), The silver economy – Final report, European Commission, Directorate-General for Communications Networks, Content and Technology, (Publications Office). Hemen eskuragarri: <https://www.mayoractual.com/media/mayoractuals/files/2018/09/11/Silver-Economy.pdf>

Zizeron, Marco Tulio (2016) [originala: K. a. 45-44], Acerca de la vejez (Cato Maior de senectute) (Madril, Rialp).

1. dosierra: «Garai berriak garapenaren nazioarteko lankidetzarako», 2011ko apirila.
2. dosierra: «Mundua kontsumotik aldatzea?», 2011ko uztaila.
3. dosierra: «Itzalak mikrofinantzetan», 2011ko urria.
4. dosierra: «EGE krisiaren aurrean», 2012ko urtarrila.
5. dosierra: «Garapenerako lankidetzak krisi-garaian. Eragile berriak, helburu berriak», 2012ko apirila.
6. dosierra: «Krisia, herritarren haserrea eta gizarte-mugimenduak», 2012ko uztaila.
7. dosierra: «Beste politika ekonomiko bat posible al da?», 2012ko urria.
8. dosierra: «Banku etikoa posible al da?», 2013ko urtarrila.
9. dosierra: «Desberdintasuna eta gizarte-kohesioaren haustura», 2013ko apirila.
10. dosierra: «Elikagaien segurtasuna: Eskubidea eta beharra», 2013ko uztaila.
11. dosierra: «2015 ondoko garapen-agenda: Lehengo bidetik edo trantsizioaren hasiera?», 2013ko urria.
12. dosierra: «Ekonomia lankidetzan», 2014ko urtarrila.
13. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dag», 2014ko udaberria.
14. dosierra: «GEK: Erretorika gainditzeko», 2014ko uda.
15. dosierra: «Ekonomiaren irakaskuntza», 2014ko udazkena.
16. dosierra: «Prokomuna eta ondasun erkideak», 2015eko negua.
17. dosierra: «Garapenaren finantzazioa eta 2015 ondoko Agenda», 2015eko udaberria.
18. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dago (II. jardunaldiak)», 2015eko uda.
19. dosierra: «Gizarte-bazterketak», 2015ko udazkena.
20. dosierra: «Zerga-sistema: efizientzia eta ekitatea», 2016eko negua.
21. dosierra: «José Luis Sampedro gogoan», 2016 2015eko udaberria.
22. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dago (III. jardunaldiak)», 2016eko uda.
23. dosierra: «Ongi bizitzea, gizartearen paradigma alternatibo gisa», otoño 2016ko udazkena.
24. dosierra: «Energia. Erronkak eta arazoak», 2017ko abendua.
25. dosierra: «Genero-ikuspegia ekonomia sozial eta solidarioan», 2017ko udaberria.
26. dosierra: «Gure gizarte- eta ekonomia-ereduari buruz berriro pentsatzen», 2017ko uda.
27. dosierra: «Inpaktuko inbertsioa», 2017ko udazkena.
28. dosierra: «Globalizazioaren gobernuak», 2018ko negua.



- 29. dosierra: «**Ekonomia feminista: ikusezina ikusgai egiten**», 2018ko udaberria.
- 30. dosierra: «**Begirada kritikoak eta zeharkakoak**», 2018ko uda.
- 31. dosierra: «**Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko praktikak eta tresnak: partekatutako gogoeta bat**», 2018ko udazkena.
- 32. dosierra: «**Enpresako Demokrazia Aldarrikatzen**», 2019ko negua.
- 33. dosierra: «**Elikaduraren etorkizuna munduan**», 2019ko udaberria.
- 34. dosierra: «**2030 Agenda: gatopardismoa edo transformazioak**», 2019ko uda.
- 35. dosierra: «**Gizarte erantzukizun korporatiboa Elikagaien industrian**», 2019ko udazkena.
- 36. dosierra: «**Demografia: aldaketak ugalketa-ereduan**», 2020ko negua.
- 37. dosierra: «**Ekonomia zirkularra: aukera burutsua**», 2020ko udaberria.
- 38. dosierra: «**Funtsezko ekonomia: Herritarren ongizateari laguntzen**», 2020ko uda.
- 39. dosierra: «**Ekonomiaren Oligopolizazioa**», 2020ko udazkena.
- 40. dosierra: «**Espainako ekonomiaren ekoizpen-eredua berrantolatze bidean**», 2021ko negua.
- 41. dosierra: «**Garapena**» Neurtu (Eta Ulertzeko) Beste Modu Batzuk», 2021ko udaberria.
- 42. dosierra: «**Gizarte digitala, itxaropenak berreraikitzen**», 2021ko uda.
- 43. dosierra: «**Europa, pandemia eta krisi ekonomikoa**», 2021eko udazkena.
- 44. dosierra: «**Covid-19: ondorio sozial eta politikoak eta erantzuteko politikak**», 2022ko negua.
- 45. dosierra: «**Finantza Jasangarriak: Inbertsioaren Paradigma Berria?**», 2022ko udaberria.
- 46. dosierra: «**Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako**», 2022ko uda
- 47. dosierra: «**Agenda eta Ezinbesteko Paradigma-Aldaketa Unibertsitatean**», 2022ko udazkena
- 48. dosierra: «**Enpresa-Eredu Berriak Eta Demokrazia Ekonomikoa**», 2023ko negua
- 49. dosierra: «**Finantza-sistemaren digitalizazioaren erronkak**», 2023ko udaberria.
- 50. dosierra: «**Ekonomia espainiarra bidegurutze kritikoan**», 2023ko uda
- 51. dosierra: «**Ekonomiaren eraldaketa digitala: lanean dituen eraginak**», 2023ko udazkena
- 52. dosierra: «**Bidezko Trantsizio Ekosoziala**», 2024ko negua.





Economistas
sin Fronteras

MgE dosierrak
53. zk, 2024ko udaberri



Laguntzailea



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetz
Cooperación



Mugarik gabeko Ekonomialariak

c/ Gaztambide, 50 (sarrera SETEMen
lokaletik barrena)
28015 • Madril
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi

EKONOPOLo, Harrobi Plaza, 4,
48005 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org